

hh
hik hasi

Mapi Urresti psikomotrizistari elkarrizketa
Eleaniztasuna hezkuntzan
Europako hezkuntza-sistemetatik ikasten
Kirolean genero berdintasuna nola sustatu
daiteke eskolaren eremutik?
INSPIRA proiektua
Itziar Alduntzin



HEZKUNTZA-PROPOSAMENA

IRAKURGAI BERRIAK, IRAKURRIZ DIBERTITZEKO

8-12
urte



+8
urte

Errekak oiloari

Antton Kazabon + Enrique Morente

Zabla errekarren inbidiatan bizi da. Astoa eta oilarra, beti sesioan. Otxoak zakurra izan nahi du eta zakurrak otxo.



+8
urte

Munstro txikiak. Mamutxo bere gurasoen bila

Alaine Agirre eta Xabier Mendiguren + Belatz

Mamutxoak kasualitatez deskubrituko du bere gurasoak, hitzetan jotzen zituenak, biziak daudela. Bere lagunak kontribuko dituz haien bila joateko.



+10
urte

Akats bat lehenengo lerroan

Garazi Kamio + Eider Eibar

Ingele argi zuen bere bizitzaren lehenengo lerroan akats bat zegoela, eta hori zuzentzen hasteko, bere buruari Gartzot izena jarri zion.



+12
urte

Limoiondoaren loreak

Lur Gallastegi + Susana Martín

Violeta eta Luna, Claudia eta Daniela ama-alabek familia bat osatzen dute Inaxiaren batera. Elkarrekin bizitzeko jaiak ziren Inaxi gaixotu ondoren.

haurrak

elkar

www.elkarargitaletxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

HEZKUNTZA PROPOSAMENA

Hik Hasi egitasmo pedagogikoak hezkuntza hobetzeko proposamena aurkeztu du. *Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak* izenekoa. Dokumentua adosteko, urtebeteko hausnarketa egin dute sare guztietako irakasle eta hezitzaileek, eta hainbat adituk haien ekarpenak egin dituzte.

ELKARRIZKETA / 18

MAPI URRESTI

Hik Hasi-k antolatuta, "Psikomotrizitate erlazionala" izeneko formazioa ematen ari da Urresti. Psikologoa, sexologoa eta harreman psikomotrizista da eta hamar urteko esperientzia du familiekin nahiz irakasleekin lanean. Bere jardunean, haurra eta helduaren arteko harremanean jartzen du arreta, uste baitu haurraren garapena osasuntsua izan dadin, helduarekiko harremana segurua izatea funtsezkoa dela.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-10-26).

Kopurua: 3.100 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Hezkuntza hobetzea denon ardura da

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Hezkuntza hobetzeko zoru pedagogiko eta etikoa

18 ELKARRIZKETA

MAPI URRESTI

"Ezin dugu haurrarekin egon gure buruarekin egon gabe"

28 ESPERIENTZIAK

Eleaniztasuna hezkuntzan

30 EKARPENAK

Europako hezkuntza-sistemetatik ikasten

34 GALDEIDAZU

CARMEN DIEZ MINTEGI

Kirola eta genero berdintasuna uztartzeko modurik ba ote da?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Inspira proiektua. Nesken artean bokazio teknologikoa sustatu nahian

42 ATZEKO ATETIK

Itziar Alduntzin

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Hezkuntza hobetzea denon ardura da

editoriala

ESKOLAK BERE HEZKUNTZA PROIEKTU PROPIOA IZATEA BALDINTZA GARRANTZITSUA DA ESKOLAK NORABIDE ZUZENEAN SEGURU LAN EGIN DEZAN, AUTONOMIAZ, BEHAR ADINAKO FINANTZIAZIOAZ, ETA LANTALDE EGONKORRAREKIN.



Eta zergatik? Zertarako? Eta hau zer da? Eta hori? Eta bestea? Eta nola? Eta non?...” agortezina dirudi eskolan hasi berri den haur txiki baten jakin-minak.

Baina tamalez, askotan, —gehiegitan— kamusten joaten da haurraren jakiteko irrika, herdoiltzen, lausotzen, apaltzen, mugatzen, mozten... eta handitzen-handitzen doan neurrian, haurra aspertu egiten da eskolan. Ez beti, ziurrenik ez gehienetan, baina askotan —gehiegitan— ikusten dugun errealitatea da. Haurraren errua ote?

Edo, akaso, eskolak berak, administrazioek, sistemek, jendarteak, egiturek badute erantzukizunik haurraren jakim-nin horri eutsi eta indartu beharrean kamustu eta apaltzean?

Hik Hasi egitasmo pedagogikoak urteak daramatza hezkuntza hobetzeko ideiak mahai gainean jartzen, hezkuntzako hainbat praktika aztertzen, prestakuntza eskaintzen, hezkuntza-eragileei elkarrizketak egiten eta nazioarteko hezkuntza ezagutzen eta ezagutarazten. Orain, urtebetez Euskal Herriak behar duen hezkuntzaz hausnartzen eta eztabaidatzen aritu ondoren, hezkuntza hobetzeko ekarpena egitea erabaki du: **Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: Hezkuntza hobetzeko gakoak** izenekoa.

Balioetan hezteko hezkuntza proposamena da —haurraren kultura aitortzen eta errespetatzen duena; parte hartzeko eta erabakiak hartzeko aukera eskaintzen duena; aniztasunean berdin eta parekide izanez ariko dena...—. Ikuspuntua eskolatik zabaltzen duen proposamena da, herri-herri, herritarrengana, gertuko administrazioetara. Gaur egungo antolaketa (urruneko kudeaketa, burokrasia handia, sareen arteko zatiketa, gurasoen, ikasleen, irakasleen eta herritarren arteko banaketa...) mesfidantza-iturri dela ikusten

baitugu. Aldiz, *Hik Hasiren* ustez, jendarteak izan behar du heziketaren protagonista; hezte bere egitekoa dela sentitu behar du, eta arduraz bizi behar du.

Eta, era berean, haurra bere osotasunean hartuko duen hezkuntza proposatzen du *Hik Hasi*k datozen orriotan aurkezten dizun dokumentuak. Aldaketa horrek, lehenik haurri egingo dio mesede, eta beraz jendarteari, baina baita gure eskolari ere. Haurrek oinarri sendoak finkatzeko bizitzako lehen urteek duten garrantziagatik, hainbat neurri hartzea proposatzen du *Hik Hasiren* dokumentuak, eta Oinarriko Hezkuntza osoa pertsonaren askotariko kompetentzien garapenera zuzentzea, nerabezaroa bereziki gertutik jarraitu beharreko aroa dela jabeturik.

Herria aipatu dugu, herritarrak eta gertuko administrazioa, baina eskolari duen garrantzia aitortzen dio proposamen honek. Eskolak bere hezkuntza proiektu propioa izatea baldintza garrantzitsua da eskolak norabide zuzenean seguru lan egin dezan, autonomiaz, behar adinako finantziarioaz, egoki prestatutako zuzendaritza ondo aukeratuarekin, eta lantalde egonkorrarekin.

Irakasle, eskuartean duzun dokumentua hezkuntza hobetzeko proposamen bat da. Hausnarketarako eta eztabaidarako tresna. Proposamen serioa, zintzoa, hausnartua eta hezkuntza hobetzeko benetako borondatez egina. Belaunaldi berrientzat onena helburutzat hartuta, aurrera begira jarri eta jauzi kualitatibo bat egiteko oinarriak edo beharrezko zorua finkatzen laguntzeko asmoz taxutu duguna une koiunturaletik harago. Irakasle, herritar, guraso, edo ikastetxe, auzo, herri gisa, hezkuntza hobetzeko balioko diguna hartu eta erabiltzeko proposamena duzu hurrengo orriotan. Eskerrik asko!

Hutsen zuzenketa:

221. Hik Hasi aldizkarian Zizurkilgo San Millan eta Abaltzisketako Txalburu eskolen inguruko erreportajea argitaratu genuen. Izenburua ez da zuzena, eta gaizkiulerturik egon ez dadin zuzendu egin nahi dugu: Tailerren bidez lanean ari direnak soilik Zizurkilgo San Millan eta Abaltzisketako Txalburu eskola txikiak dira, eta ez eskola txiki guztiak erreportajearen titularrak aditzera ematen duen moduan.

Hazi Hezi

haziera eta heziketarako euskal aldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen diogunon
komunitatea

www.hikhasi.eus

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HEZKUNTZA PUBLIKOKO LANGILEEK MOBILIZAZIOAK HASI DITUZTE ETA GABONAK ARTE SEGIKO DUTE PROTESTAN



Hezkuntza publikoko langileek protestak egin dituzte Donostian, Bilbon eta Gasteizen *Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki!* leloa ardatz hartuta. ELAK, LABek, eta Steilasek antolatutako mobilizazioak izan dira. “Benetako negoziazioa” eskatu diote administrazioari; langile gehiago nahi dituzte, eta baldintza egonkorretan. Hain justu, salatu dute behin-behineko kontratuekin ari direla agun beharginen % 39, eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ez duela egoera hori iraultzeko proposamenik egiten.

Aurrera begira ere, hiru sindikatuok elkarlanean, kalitatezko hezkuntzaren alde mobilizazioak adostu dituzte Gabonak bitartean. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan hainbat mobilizazio egiten ari dira ikasturte hasieratik, eta hurrengo asteetarako deitutako grebek osatuko dute protesten dinamika hori. Hainbat kolektibok lan-uzteak egingo dituzte azaroan, ostegunarekin, astean zehar hainbat ekintza egin eta gero; abenduan, berriz, kolektibo guztiek egingo dute bat protesta egiteko garaian. Hauxe da greben egutegia:

- Azaroak 9, haur-eskolak
- Azaroak 16, garbitzaileak eta sukaldariak
- Azaroak 23, heziketa bereziko langileak
- Azaroak 30, irakaskuntza
- Abenduak 12, kolektibo guztiak

191 PLAZAKO ESKAINTZA PUBLIKOA EGIN DU NAFARROAKO GOBERNUAK IRAKASKUNTZAN

Bigarren Hezkuntzarako eta Formakuntza Profesionalerako 191 plazako deialdia egin du Nafarroako Gobernuak. 2017an atera beharreko lanpostuak izan dira horiek, berrezartze tasa adostu ostean. Sindikatuei azaroaren 10ean amaituko zaie balorazioak egin eta iritzia emateko epea. Irakasleen oraingo lan deialdi publiko honetan, kontratazio zerranda bakarria ezarri nahi du Gobernuak, elebakar nahiz elebidunentzat.

BOKALEN ‘HATSA’ IKASTOLA INAUGURATU DUTE ERRONKA HANDI BATEKIN: HAURRAK EUSKALDUNTZEA

Hatsa ikastola zabaldu dute Bokalen (Lapurdi). Bi hanken gainean hasi dute proiektua: haurrak euskalduntzearena bata, eta Montessori pedagogiarena bestea. Sei familiarekin abiatu dute egitasmoa, eta horietariko bi besterik ez dira euskaldunak, baina guztiek egin dute haurrak ikastolara eraman eta euskalduntzeko apustua eta horixe da ikastolako komunitateko kideek txalotu dutena.



URTEROKO LEGEZ, DURANGOKO AZOKAN PARTE HARTUKO DU HIK HASI-K.

Bi nobedade nagusi eramango ditu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak aurtengo Durangoko liburu eta disko azokara: psikomotrizitatearen inguruko monografikoa —aldizkari honekin batera argitaratu berri dena—, eta pedagogia sistemikoari buruzkoa —uda aurrean kaleratutakoa—. Horrez gain, bestelako monografikoak, aldizkariak, musika-materiala, yoga lantzeko CDa, DVDak, liburuak... ere eskuratu ahaliko dira Hik Hasi-ren standean.

Abenduaren 6tik 10era egingo da aurtengo azoka, 52.ez, “sormenaren lurraldea DA” lelopean. Aurten, hirugarren aldiz, bost eguneko azoka antolatu dute, eta lkasle Eguna bigarren egunean ospatuko da.



HIRU URTEAN % 20 TXIKITU NAHI DU EUSKO JAURLARITZAK AZUKRE ETA GATZ KONTSUMOA

Herritarren jateko ohiturak hobetu nahi ditu Eusko Jaurlaritzak, barazki eta fruta kontsumoa handituz. Bereziki gazteengan jarri dute fokua: % 51k ez dute frutarik jaten egunero eta % 82k ez dute barazkirik jaten. Eskoletako jangelei arreta berezia jarriko zaie: egunero 90.000 umek bazkaltzen dute eskoletan. Obesitateari aurre egiteko tresnak martxan badaude ere, jangelen kudeaketa adjudikatze baldintzetan aldaketak izango direla iragarri du Jon Darpon Osasun sailburuak. Janari “osasungarriagoa” eskaintzea da xedea.

JOLASAREN, EMOZIOEN ETA SORMENAREN GAINEKO TAILERRA EGINGO DUTE BIZILORE ESKOLAN

Azaroaren 11n eta 12an, Iraide Rabadan hezitzaileak eta Gestaltean arteterapeutak gidatuta, jolasaren, emozioen eta sormenaren gaineko tailerra antolatu dute Azkoitiko Bizilore eskolan. Besteak beste, jolas librea, adierazbidea eta komunikazioa, presentzia aktiboa edota partekatzearen garrantzia landuko dituzte asteburu batez. Informazio gehiagorako edota izena emateko <http://bizilore.eus/> gunera jo daiteke.

LANDA AZTERKETAK EGITEN IKASTEKO FORMAIZIOA ANTOLATU DU UEU-K

Landa-lanaren garrantzia zein den ezagutzeko zizentzian nahiz ikasleen lanbide-heziketan, “lkerlariak gara: landa-azterketak zientzian” izeneko ikastaroa antolatu du UEUk urtarri-lerako eta otsailerako. Helburua da kasu praktikoak ezagutzea eta horien esperientziatik ikastea. Aitor Arrizabalaga Biologiako doktorea eta unibertsitateko irakaslea ariko da formazioa lanetan. Informazio gehiagorako edota izena emateko www.ueu.eus webgunera jo behar da.

HIZPIDE IZANGO DA

'GURASOEI GUTUNA' V. IDAZLAN LABURREN LEHIAKETA EGINGO DA TTIKLIK ELKARGUNEAK ANTOLATUTA



Beste urte batez ere "Gurasoei gutuna" idazlan laburren lehiaketa jarri du martxan Ttiklik egitasmoak. Haurrekin lanketa egiteko aukera eman nahi du: gurasoekiko harremanak, sentimenduak adieraztea, istripuen eta doluaren gaia... Baina gurasoak ere animatu nahi dituzte parte-hartzera, barneko hori atera eta idatziz islatzera. Lehiaketa honen helburua, bakoitzak bere gurasoei esan nahi dizkien hitzak gutun laburren bidez adierazteko aukera ematea da. 7 urtetik hasita muga gabeko jende guztia animatu nahi dute idaztera. 0tik 6ra bitarteko haurrek ere, marrazki bidez, gurasoei esan nahi dietena espresatzeko parada izango dute. Lanak aurkezteko epea zabalik dago azaroaren 20ra arte. Sariak, berriz, azaroaren 25ean emango dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, info@ttiklik.com-era idatz daiteke.

PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN GAINEKO SAIO IREKIA EGINGO DUTE BERGARAKO MARIAREN LAGUNDIA IKASTETXEAN

Azaroaren 11n, 10:00etatik 14:00etara Pedagogia Sistemikoaren gaineko formazio jardunaldia egingo dute Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxean. Besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dituzte: pedagogia sistemikoaren oinarriak; inklusioa, jatorria eta sustraiak; irakasleen eta gurasoen arteko hartu emana; eta gatazkak bideratzea. Sarrera doakoa da, baina aurrez izena ematea komeni da beginradasistemikoa@gmail.com helbidera idatzita. Psikologia eta pedagogia sistemikoaren arloa urtetako esperientzia duen Iñaki Aranak zuzenduko du formazioa.

PSIKOMOTRIZITATE PRAKTIKARI BURUZKO XIII. JARDUNALDIAK EGINGO DIRA AZAROAREN 10ETIK 12RA GASTEIZEN

"Ume zailak? Baina zer-nolako zailtasunei buruz ari gara?" izenburupean Bergarako Luzaro psikomotrizitate elkarteak XIII. Psikomotrizitate Praktikari buruzko jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 10, 11 eta 12an, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian. Irekita dago izena emateko epea.

<http://www2.uned.es/ca-bergara/PSICOMO/Escuela.htm> orrialdeko behealdean dagoen fitxa beteta egin daiteke matrikula.

Programari dagokionez, azaroaren 10ean, ostiralez, Ana Sáenzek seme-alabak hezteko irizpideen eta gaur egungo ondoez nagusien gainean hitz egingo du. Hurrengo eguneko jarduna ere hizlari berak abiatuko du, eztabaidagai batekin: hazte-prozesua, autonomia eta mugak. Ondoren, Marta Prieto eta Eva Torres ariko dira. Lehen psikomotrizitate gelaz eta 0-3 urteko hurrez; eta bigarrena, psikomotrizitate gelako istiluen eta zailtasunen gainean. Amaitzeko, igandean, "Zintzoa ala zorionsua izan. Pertsona, eskola, gizarte ereduaren noraezean" izenburupean Jon Arana ariko da lehenik; eta gero, Luispe Gutierrezek "XXI. mendeko Psikomotrizitate Praktika Hezitzailea: eztabaidarako giltza batzuk" izeneko hitzaldia eman- goko du. Eta amaitzeko, mahai-ingurua egingo da, hizlarien eta partaideen artean solasean aritzeko.



Hik Hasi egitasmo pedagogikoak hezkuntza hobetzeko proposamena aurkeztu du. *Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak* izeneko. Dokumentua adosteko, urtebeteko hausnarketa egin dute sare guztietako irakasle eta hezitzaileek, eta hainbat adituk haien ekarpenak egin dituzte, horien artean, Mondragon Unibertsitateko, EHUko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko, UEUko eta Baionako Unibertsitateko hainbat irakaslek. Herritarrei, irakasle eta hezitzaileei, eskola eta institutuei, gertuko administrazioei eta hezkuntza eskumenak dituztenei zuzendua dago dokumentua.

GAIA: HEZKUNTZA- PROPOSAMENA

Hezkuntza hobetzeko zoru pedagogiko eta etikoa

Haurra, garapena, hezkuntza, kalitatea, familia, eskola, jendartea... eta, horrela, zerrenda oso luzea osa genezake HEZIKETAren inguruko hitzekin. Hitz bakoitzak bere barnean esanahi sakona darama.

Dударik ez. Baina denok berdin ulertzen ote ditugu hitz horiek? Non hasten da hezkuntza? Noren erantzukizuna da? Nork hartzen du parte hezkuntzan? Nork hartu beharko luke parte hezkuntzan?... Eta, eskolari begira jarrita, duela bi mendeko egitura administratiboarekin eta iragan mendeko prestakuntzarekin, hezi al daitezke gaur eguneko haurrak?

Hausnarketa, eztabaida eta lanketa luzearen ondoren, Hik Hasi egitasmo pedagogikoak hezkuntza hobetzeko proposamen bat aurkeztu zuen pasa den urriaren 21ean Donostian.

Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak. Eskola hobetzeko, baina hazkuntza- eta hezkuntza-baldintzak hobetzeko proposamena ere bada dokumentua. Heziketa ikuspegi hutsetik egindako ariketa libre da Donostian aurkeztu zuten dokumentuaren muinean dagoena, eta han azaldu bezala, “belaunaldi berrientzat onena helburutzat hartuta, aurrera begira jarri eta jauzi kualitatibo bat egiteko oinarriak edo beharrezko zorua finkatzen laguntzeko asmoz taxutu dugu proposamena, EAE-ko une koiunturaletik harago, aurrera begirako ikuspegi eta Euskal Herri osorako”.

Hik Hasiren ekimenez, urtebeteko hausnarketa egin dute

sare guztietako irakasle eta hezitzaileek, eta hainbat adituk haien ekarpenak egin dituzte, horien artean, Mondragon Unibertsitateko, EHUko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko, UEUko eta Baionako Unibertsitateko hainbat irakasle hezkuntza hobetzeko proposamena adosteko. Egungo egoeraren diagnosis egin zuten lehendabizi (zertan asmatu da? / zertan huts egin da? / zer arrisku aurreikusten ditugu?) eta ondoren hainbat gako adostu zituzten guztien artean hezkuntza hobetzeko. Aurkezpen ekitaldian dokumentuaren lanketan eta hezkuntza hausnarketan parte hartu duten aditu eta eragile batzuek hartu zuten parte: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nora Salbotx, EHU-ko Lore Erriondo, Mondragon Unibertsitateko Nerea Alzola, Oinherri herri hezitzaileen saretik Joxe Mari Agirretxe Porrotxek eta Hik Hasiko ordezkari Kontxi Aizarna eta Xabier Sarasua irakasleek eta Hik Hasiko koordinatzaile Joxe Mari Auzmendik.

Dokumentua administrazioei zuzendua dago, hezkuntza konpetentziak dituzten administrazio guztientzako eztabaidarako proposamen dokumentua da. Baina baita eskola eta institutuarentzako ere, barne eztabaidarako eta eraldaketarako. Baina era berean, herritarrak, familiak eta herrietako administrazioak (udalak) ere dokumentuaren hartzaileak dira, guztiok baitauek hezkuntzan ardura: “Enfokea aldatu behar dugu hezkuntza hobetuko badugu: hezkuntza guztion ardura da, guztiok hartu behar dugu gure erantzukizuna”.

GAIA: HEZKUNTZA-PROPOSAMENA

Hezkuntza hobetzeko zoru pedagogikoa eta etikoa

Sarrera

Hik Hasi egitasmoak 22 urte daramatza hezkuntzako hainbat praktika aztertzen, prestakuntza eskaintzen, hezkuntza-eragileei elkarriketak egiten eta nazioarteko hezkuntza ezagutzen eta ezagutarazten. Sorreran, euskal hezkuntzan gabiltzan gutxion elkargunea izateko asmoa zuen, eta horretan jarraitzen du. Orain, urtebetez Euskal Herriak behar duen hezkuntzaz hausnartzen eta eztabaidatzen aritu ondoren, bere ekarpena egitea erabaki du.

Proposamen gehienak eskolan zentratzen badira ere, heziketaren ikuspegi globala izan nahi dugu oro har, *herri hezitzailearen* filosofiaren bidetik. Izan ere, haurrak etxeko ardurapean igarotzen du denboraren % 80. Eskolan, denboraren % 10-12 igarotzen dute (zenbat eskola-ordu dituzten, 5 ala 6), eta, eskolaz kanpoko jardueri edo aisialdiari dagokio gainerakoa, % 8-10 inguru. Haur-eskoletako haurren kasuan ere, % 16ren inguruan dabilta. Argi dago etxeko bidez jasotzen den heziketa dela oinarritzat, eta, beraz, familiei lagundu egin behar zaie egoera egokiak izaten eta seme-alabak ongi hazten eta hezten.

Eskolak garrantzi handia du, nola ez. Han sozializatzen da haurra; lagun-taldea egiten du; ikasketetarako eta bizitzarako oinarritzatko egituraketa eraikitzen du; etxetik ekar ditzakeen desabantailak leuntzen ahalegintzen da; gurasoen taldeak sortzen dira... Baina jendartean sortzen diren zailtasunak, erronkak edota arazoak bideratzeko, ardura gehiegi jarri da haren gainean. Eskolak asko egiten du, eta are gehiago egin dezake, baldintzak hobetzen badira. Bestalde, eskolaz kanpoko jarduerak eta aisialdia gero eta pisu handiagoa hartzen ari dira gure munduan. Eta modu egokian tratatu behar da hori.

Azken hamarkadetan, horrelako esaldiak entzun izan ditugu hainbat pedagogo, psikologo eta hezitzailearen ahotik: “Duela bi mendeko egitura administratiboa dugu; aurreko mendekoa dugu prestakuntza, eta mende honetako ikasleak hezten ditugu”. Hezitzaile askok egiten du bat diagnostiko horrekin. Baina nola egiten zaio aurre egoera horri? Nola hobetu dezakegu gaur egungo hezkuntza? *Hik Hasiren* ustez, jendarteak izan behar du heziketaren protagonista; hezte bere egitekoa dela sentitu behar du, eta arduraz bizi behar du. Askok lagun dezake horretan gertuko kudeaketak. Hori da European indartzen ari den ildo, inbertsioak hobeto kudeatzen lagun dezakeelako, jendeak bereago sentitzen duelako heziketa, eta herritar arduratsukoak sorraraz ditzakeelako. Gaur egungo antolaketa (urruneko kudeaketa, burokrazia handia, sareen arteko zatiketa, gurasoen, ikasleen, irakasleen eta herritarren arteko banaketa...) mesfidantza-iturri da. *Hik Hasik* jendarte

bateratuagoa lortu nahi du, konfiantzan gehiago oinarrituko dena, kooperatiboagoa, eta ekitatea eta kohesio soziala sustatuko dituen.

Hezkuntzak duen garrantzi soziala kontuan hartuta, beste antolaketa mota bat proposatzen du *Hik Hasik*. *Hik Hasiren* ustez, denontzat eta denona izango den euskal hezkuntza-sistema berriak –Euskal Hezkuntza Sistema Publiko bateratzaile, sozial edo inklusiboak, esan genezake– hiru oinarri edo ezaugarri izan behar lituzke:

- A. Finantzetari eta hezkuntzako esku-hartzearen jarraipenari dagokionez, PUBLIKOA izan behar du, eta hezkuntza-eskumena duen administrazioa izango da funtzio horien arduraduna.
- B. Eskola bakoitzak AUTONOMOA izan behar du, bere hezkuntza-egitasmoa garatzeko, bai ildo edo estilo pedagogikoari dagokionez, bai ikastetxearen barne-antolaketari dagokionez (jangelaren kudeaketa hezitzaile barne). Ildo pedagogikoaren ikuspegitik, estatuek aspalditik dute eskolako hezkuntza-jardueraren norabidea beren menpe hartuta. Bada garaia hezkuntza-egitasmo bakoitzak bere kabuz hausnar dezan, eta erabaki dezan zer funtzio bete beharko lituzkeen bakoitzaren bidez mamitutako eskolaratzeak: gizarterako hezteak ez du esan nahi estatuek eta botere ekonomikoek zehaztu behar dutenik ikaslearen azken profila; aitzitik, zer gizartetan bizi behar duten kontuan hartuta bada ere, haurra den horretan aitortuz, haren identitate propioa garatzeko hauspoa emanez, berez dituen gaitasunak garatzen lagunduz eta komunitateko partaide izateko bideak jarritzat lortuko da ekarpenik aberasgarriena.
- C. Jaiotzatik nahitaezko eskolaratzea amaitu bitarteko hezkuntza-jardura familiak bizileku duen udalerrian gertatzen da gehienetan. Horregatik, edozein udalerritako hezkuntzako esku-hartzean, ezinbestekoak dira HEZKUNTZA-ERAGILEEN arteko lankidetzak, GERTUKO ADMINISTRAZIOAREN inplikazioa eta HERRIKO GAINERAKO ERAGILEEN partaidetza. Udalerriko hiru eragile mota horien arteko lankidetzan eta antolaketan nahi adina sakondu ahal izan beharko genuke, udalerriko hezkuntza antolatzeko eskumena eta bitartekoak udalaren esku uzteko aukera ere emanez, hala nahi izanez gero.

Horrez gain, European eredu ditugun herrialdeetako batez besteko hezkuntza-inbertsioa kontuan harturik, argi dago nabarmen handitu behar dela inbertsio hori.

Amaitzeko, *Hik Hasiren* hezkuntza-proposamena irekia dela esan nahi dugu. Hauxe eman du urtebeteko hausnarketak. Prest gaude edonorekin partekatzeke, besteen proposamenak entzuteko, hitz egiteko, adosteko... Azken finean, gure herriko hezkuntza-egoera hobetu nahi duten guztiek alboan izango gaituzte.

Euskal Herriko hezkuntza hobetzeko gakoak

1. Hezkuntza-jarduera balio hezitzaileetan oinarritzea.

- *Herri hezitzailea* filosofiaren azpian, Euskal Herri osoko hezkuntzako, euskararen arloko eta aisialdiko 14 eragilek bat egin dute (OinHerri elkarte), oinarritzko hainbat balio lantzeko eta, horrela, jendartea hobetzeko asmoz. Egoki ikusten dugu balio horiek hezkuntza-proiektuetan txertatzea eta eguneroko praktikan kontuan hartzea: Haurraren kultura aitortzea eta errespetatzea. Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko aukera eskaintzea. Aniztasunean berdin eta parekide izanez aritzea. Ingurumenarekin bizitzen ikastea. Ingurumen kulturala zaintzea. Harremanetan, euskara lehenestea. Elkarlanean aritzea, eta auzolana sustatzea. Komunitatean bizitzea.
- Gure herriko ohituren transmisioan iritsi zaizkigun hainbat balio desiragarri aintzat hartzea –duintasuna, eskuzabaltasuna, ekimen-zaletasuna, egiarekiko eta askatasunarekiko jarrera, harreman orekatuen aldeko sena...–.
- Nolako mundua edota etorkizuna nahi dugun egoki irudikatzea, eta horrekin koherenteak izatea: heziketaren helburu gisa, mundu hobe bat lortzea hartuko genuke. Guk hartutakoa baino mundu hobea uztea ondorengoei. Mundua iraunkor bihurtzea: naturarekin biziz, kultura-aniztasuna errespetatuz, osasuna zainduz, elkartasuna landuz, taldeko egitasmoak indartuz...
- Hezkuntzak herritar arduratsuak, irizpidedunak, kritikoak eta baikorrak sortzeko eta, norberak dituen dohainak ezagututa, jendartean ongi kokatzeko balio behar du.



2. Haurrek oinarri sendoak finkatzeko bizitzako lehen urteek duten garrantziagatik, hainbat neurri hartzea

- Zaintza familiaren testuinguruan nahiz erakundeen eta haur-eskolaren testuinguruan gauzatu, oinarrizko helburuaren printzipio nagusia lehenestea eta berrestea: haurren interesa. Haurren eskubideen barruan kokatu behar da hori, eta haur txikiaren garapen orokorraren mesedetan gauzatuko da.
- Haurren gurasoek baimen ordaindua luzatzeko aukera izatea, haurrak urtebete izan arte, gutxienez. Europako hainbat herrialdetan, aukera hori eskaintzen da dagoeneko.
- Lehen hiru urteak bete arte, haurrak etxean zaintzeko eta hezteko erraztasunak ematea.
- Aukera horren orde edo osagarri gisa familiek harrera edo zaintza moduak aukeratuz gero (udalen haur-eskolak, partzuergoko haur-eskolak, bestelakoak, haurtzaindegiak, kabi-etxeak...), behar beste leku ahalbidetzea, eta ahalik eta harrera, zaintza edo heziketa onena eskaintzea.
- Egoki litzateke kontuan hartzea *Haur Hezkuntzarako Europar Sareak* erreferentzia gisa hartzen dituen haur kopuruak, heldu bat 0-12 hilabete bitarteko 4 haurrekin egoteko, hau da, 1/4 erlazioa; 1/6, 12-24 hilabete bitartekoekin; 1/8, 2-3 urte bitartekoekin; 1/12, 3-4 urte bitartekoekin, eta, 1/16, 4 eta 5 urtekoekin.
- Gizartean adin horri zuzentzen zaion eskaintza zabalaren aurrean, ezinbesteko eta berehalako gogoeta publiko, sakon eta unibertsalari ekitea, haurren garapena bermatzeko duten kalitatezko baldintzak azter daitezten.
- 0-3 adin-tarteko haurren garapenak dituen berezitasun propioak kontuan hartuta, aro hori ez dela hezkuntza hutseko aroa eta, are gutxiago, eskolaren aroa azpimarratzea; izatekotan ere, hezkuntzaren aurretiko garairen edo familiaren eta eskolaren arteko zubi garaia besterik ez da.
- 0-3 adin-tarteak duen garrantzia kontuan hartuta, etapa horretan hezitzaile gisa lana egiteko prestakuntzan sakontzea, adin horietako haurren garapenaren ezagutzan batez ere.
- Haur-eskoletako langileen lan-baldintzak eta soldatak Haur Hezkuntzako beste zikloetako langileenekin homologatzea. Bestalde, langile horien lana babesteko profesionalen taldeak izatea.
- Kalitatezko arreta goiztiarra eskaintzea, haurren garapenean sor daitezkeen zailtasunen aurrean lankidetzaren egoia baliatzeko; eta profesionalak eta familiak elkarrekin lan egin dezaten bideak eskaintzea.
- Haurrek eta gurasoek partekatuko dituzten espazioak eta jarduerak antolatzea, profesionalen laguntzarekin.

3. Oinarrizko Hezkuntza osoa pertsonaren askotariko kompetentzien garapenera zuzentzea, eta nerabezaroa bereziki gertutik jarraitu beharreko aroa dela jabetzea

- Oinarrizko hezkuntza osoan, pertsonaren hainbat alderdiren garapena ahalbidetzea: ezagutzazkoak, emozionalak, etikoak eta sozialak. Haur txikiarekin, ikasteko bitartekoa jolasa izatea, eta, handitzen ari diren neurrian, bizitza errealarekin lotuko duten egitasmoak lantzea.
- Bigarren Hezkuntzan, heziketak pisu handiagoa hartzea. Ikasgaiak irakasteaz gain, bizitzen eta pentsatzen laguntzeko eta hezteko prestatutako irakasleak izatea.
- Ikasgai bakoitzeko irakasle espezializatu bat izan beharrean, arloetako irakasle erreferenteak edukitzea. Ikuspegi soziokulturalean oinarritutako diren eta bizitzaren eta munduaren ikuspegi konplexua landuko duten proiektu globalizatzaileak lantzea.
- Gorputz-heziketari, filosofiari eta adierazpenarekin lotutako arloei (hitzaren baliagarritasuna, antzerkia, bertsolaritza, musika, plastika, kanta, dantza, poesia, publikoaren aurreko aurkezpenak...) orduetegi zabala eskaintzea, emozioak bideratzeko bitarteko egokia delako artetintza.
- Hautaprobak edota *selektibitate* eta tankerako probak kentzea, ikasketa-prozesua modu desegokian baldintzatzen dutelako.
- Ebaluazioak, oro har, zertan hobetu behar den eza-gutzeko balio izatea, eta hobekuntza horretarako zer bitarteko jarri behar diren erabakitzeko. Pertsonarengan eragina duen testuinguruaren ebaluazioa egitea, orain arteko kalifikazio-sistema bertan behera utziz eta une oro ikasleen autonomia zainduz.

4. Irakasle-hezitzaileen prestakuntza egokitzea

- Irakasteak, zaintzeak eta hezteak duten garrantziagatik, ezin liteke edonor izan hezkuntzako profesionaia. Beharrezkoak dira gaitasuna, prestutasuna eta prestakuntza.
- Irakasle Eskolan, Pedagogian, Psikologian eta unibertsitateko beste hainbat ikasketatan, ikasleen sarreran honako arlo hauek balioestea: ikasketa-mailaz gain, hurrekin aritzeko gaitasuna, jarrera, gizarte hurbilarekiko konpromisoa, enpatia, elkarlana, ardurak hartzeko prestutasuna...
- Maisu-maistrak eta irakasleak goi-mailako prestakuntza behar du, honako hauetan oinarritua:
 1. Haurtzaroaren Eskubideetan oinarritutako irakaskuntza.
 2. Psikopedagogian eta soziopedagogian oinarritako prestakuntza sendoa.
 3. Metodologia berrietan prestatua.
 4. Informazio eta Komunikazioen Teknologien arloan ezagutza izatea.
 5. Curriculum Euskal Herriko errealitate kulturalen oinarrituta egotea.
 6. Taldean lan egiteko, egoera berriei erantzuteko eta familiekin eta inguruko komunitatearekin harremanetan aritzeko gaitua egotea.
- 7. Oinarritako euskara hizkuntzan oso doituia, hizkuntza idatzian zein ahozkoan gaitua eta goi mailako erabilera izatea, ezinbestean.
- Prestakuntzako zutabea ikaslearen garapen pertsonala izatea, betiere profilararekin lotuta.
- Prestakuntzan, teoria praktikari lotuago egotea. Prestakuntzaren hasieratik, hurrekin aritzea, ikastalde baten tutorearekin batera. Izan ere, bien artean aritzeak onurak ekarriko dizkio heziketa-prozesuari, eta bikote hezitzailearen abantailei probetxua aterako zaie.
- Horretarako, gomendagarria da unibertsitatea eta eskola elkarlanean aritzea, konfiantza lortzea, eta eskolak eta unibertsitateak modu irekiagoan eta gertuagoan lan egitea, bi aldeentzako onurak lortzeko. Horren barruan, ikerkuntza eta berrikuntza proiektuak lankidetzaren bidez garatzea.
- Laneko lehen urteetan, irakasle hasiberriek hezitzaileen taldeen laguntza izateko bideak sustatzea.
- Ikaskuntza-prozesuetan, hobekuntza sustatzen duten faktoreei eta baldintzei buruzko ezagutza teorikoa eta praktikoa etengabe eraikitzen jarraitzea.

5. Eskola bakoitzak bere hezkuntza-proiektu propioa izatea.

- Eskola-elkarteak hezkuntza-proiektua bere sentitu behar du. Hau da, bere zentroarekiko atxikimendu handia izan behar du. Hori lortzeko modurik eraginkorrena eskola-elkarteak berak bere hezkuntza-proiektua diseinatzea, eztabaidatzea eta adostea litzateke. Beharrezkoa da horretarako hainbat alderidiren arteko elkarlana eta konfiantza lortzea (ikasleak, langileak, familiak, eragileak, udalak...). Izan ere, eskolak komunitate gisa funtzionatzen duenean, emaitza hobekia lortzen ditu, arlo guztietan.
- Zentro bakoitzak bere proiektuarekin bat datozen langileak aukeratzeko autonomia izan behar du. Ildo horretan, zentro bakoitzak bere prozesu propioa egin behar du, bere beharren arabera bidea egiteko aukera izan dezan.
- Eskumena duen administrazioari egokituko zaio *izaten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, egiten ikasi eta ikasten ikasi* ideien inguruan oso oinarritzea izango den curriculum bat zehaztea, eta hezkuntza-eragileekin barneko ebaluazio-sistema adostea.

6. Egoki prestatutako zuzendaritza, ondo aukeratua, eta lantalde egonkorra

- Ikastetxe guztiek izan behar dute eskolaren beharretara egokitzen den zuzendaritza-taldea aukeratzeko eskubidea eta autonomia, betiere, kudeaketa pedagogikoa lehenetsiz eta lidergo pedagogikoa indartuz.
- Prozesu parte-hartzaileak bultzatu behar ditu, ikastetxeko pertsonen gaitasunak aintzat hartuta, eredu adierazkorrak eta hierarkikoak alde batera utzita.
- Postu bakoitzerako behar den prestakuntza espezifikoa eskaintzea eta ikastetxean aukeraturako zuzendaritza hori epe baterako egonkorra izatea (3-5 urte).
- Administrazio-lana egiteko, horretaz dakiten eta eskolaren hezkuntza-proiektuarekin bat egiten duten langileak aukeratzeko eskubidea izatea.

7. Ikasleak euskaldun eleaniztun bilakatzea helburu

- *Eleaniztun* diogunean, esan nahi dugu gai izan behar dutela euskara, gaztelania ala frantsesa, eta atzerriko hizkuntza bat bizitzako hainbat esparrutan egoki erabiltzeko.
 - *Euskaldun* diogunean, euskara bizitzako hainbat esparrutan erabiltzeko gai izateaz harago, euskal kulturaz, historiaz, identitateaz eta berezitasunez jabetu behar dutela eta, jabetu ez ezik, horren guztiaren partaide sentitu behar dutela ere esan nahi dugu. Hemengo kultur-aniztasunean errotuta eta mundura zabalik egongo diren pertsonak hezi nahi ditugu.
 - 2008an, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sustatuta, Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen txostena adostu zuten hainbat hezkuntza-eragilek, EHIKek, EHIGEk, Kristau Eskolak, Sortzen-Ikasbatuazek eta *Hik Hasik*, zehazki. Abiapuntu egokia da, gure ustez. Izan ere, beste hainbat neurriren artean, hauxe nabarmentzen du:
 1. Murgiltze- eta mantentze-ereduak lehenesten ditu.
 2. Zabaldu beharreko diskurtsoan, hizkuntzen irakas-
- kuntzan euskarari lehentasuna emateak zer abantaila eta alde on dituen azpimarratzen du.
3. Hizkuntzaren Normalizazio Plana gauzatzeko, ikas-tetxean arduradun lanpostua sortzea eta dagozkion bitartekoak ematea planteatzen du.
 4. Derrigorrezko Hezkuntza hasi aurretik, ikasleei hizkuntzen aurretiazko ebaluazioa egitea proposatzen du.
 5. Behar handiagoa dutenei premiaren arabera laguntza eskaintzea aurreikusten du, eta, bereziki, euskara-maila apalagoa dutenei (ikaslea edo zentroa) premien arabera bitartekoak jartzea.
 6. Derrigorrezko hezkuntza amaitzean ikasleek hizkuntza bakoitzean lortu beharreko maila Europako hizkuntzen erreferentzia-esparruaren arabera neuritzen du.
- Herri-mailan, hezkuntzaren eta hizkuntzaren arloetako eragile guztiak koordinatuz, gune eta jarduera hezitzaile bateratzaileak antolatuko dira, herriko hizkuntza premiei erantzun adostua emateko.

8. Herrietako hezkuntza-plana, hezkuntza premiei erantzuteko

- Uste dugu gertuko kudeaketak beharrak hobeto detektatzeko eta hobeto erantzuteko balio duela. Horretarako, udalek eskumenak eta bitartekoak behar dituzte hezkuntzarekin lotutako gaietan.
- Herri bakoitzean, hezkuntza-plan bat egitea eta sustatzea udalarekin, herriko ikastetxeetako elkarteetako arduradunekin, hezkuntzako profesionalekin eta hezkuntzan interesa duten beste eragileekin. Dinamika horretan, pisu handia izan behar du hezkuntzako profesionalek.
- Hezkuntza-planaren funtzioen artean, hauek azpimarratuko genituzke:
 1. Haurren interesak zaindu ahal izateko, herriko hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa bermatzea.
 2. Herriko oinarrizko hezkuntza-ildoak edota curriculum adostea eta garatzea.
 3. Etorri berriei begira harrera- eta egokitze-plan bat egitea, hau da, herrira iritsi berrien beharrei erantzutea. Haien egokitze- eta heziketa-beharrei erantzuteko, kontuan hartzea bai haiek eta bai herriko eragileak.
 4. Etorri berrientzat eskolatzeko-plana prestatzea, udalarekin, etorri berriekin eta eskolekin batera. Oro har, matrikulatzeko irizpideak adostea, matrikulazio-kanpainak egitea, eskoletara egokitzea eta gai horren inguruan sor daitezkeen kezak bideratzea.
 5. Herriko hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren arteko koordinazio-lana egitea.
 6. Modu esperimentalean bada ere, udal-eskolak sortzeko aukera izatea, dagozkien eskumenekin eta finantzaketarekin.
 7. Behar denean, hainbat programa edo hezkuntza-plan adostea inguruko herriekin.

9. Antolaketa administratiboa denontzako modukoa eta bateratzailea

- Konfiantza eraikia
- Parte-hartzearen erraztatzailea
- Gardentasunez bizia
- Gertuko kudeaketan oinarritua
- Europan, gertuko gestioa ari da indartzen azken hamarkadetan hezkuntzaren esparruan, inbertsioak hobeto kudeatzen direlako, jendeak hezkuntza-egitasmoa bereago sentitzen duelako, eta parte-hartzean eta demokrazian sakontzen laguntzen duelako. Erreferentzia egokiak izan daitezke
- Finlandia, Danimarka, Estonia eta beste hainbat estatutako eredu deszentralizatuak (ia eskola guztiak udalen ardurapekoak dira), edo Italiako Reggio Emilia udalerriaren 0-6 urte bitarteko haurrak eskolatzeko erabiltzen duten antolaketa-eredua (udalak zuzenean kudeatzen dituen eskolak eta kudeatzen ez dituenek osatzen dute).
- Bestelako antolaketa-eredu bat ere izan liteke. Antolaketak, funtsean, oinarritzko irizpide hezitzaileetan ados egotea ahalbidetu behar luke, eta, bakoitzaren aniztasuna eta autonomia errespetatuz, herriko plangintza komuna egitea.
- Eredu horrek, hezkuntza formala (eskola), ez-formala (eskolaz kanpoko ikasketak) eta informala (etxea, aisialdia, kalea...) elkarrekin aritzeko bidea erraztu behar luke.
- *Hik Hasik*, denontzat eta denona izango den euskal hezkuntza-sistema planteatzen du –Euskal Hezkuntza Sistema Publiko bateratzaile, sozial edo inklusiboa, esan genezake–. Horregatik, proposamen hau egiten du eskolentzat:
 - A. Hezkuntza-eskumena duen administrazioak diru publikoz finantzatzea, eta finantzaketa horren guztiaren jarraipena egitea.
 - B. Eskola bakoitza autonomia izatea bere hezkuntza-egitasmoa garatzeko, bai ildo edo estilo pedagogikoari dagokionez, bai ikastetxearen barne-antolaketari dagokionez.
 - C. Udalak herri-mailako hezkuntza antolatzeko eskumena izatea.

10. Jendartearen eta hezkuntzaren beharrei erantzungo dien finantzaketa izatea

- Herri baten garapenean hezkuntzak betetzen duen zeregin garrantzitsuagatik, plangintzaren erdigunean kokatu beharko litzateke, eta inbertsio-lehentasunen artean aplikatu.
- Batez beste Europan erabiltzen den inbertsio-irizpidera iristeko plan bat egin behar litzateke. Inbertsioa nabarmen areagotzea ekarriko luke horrek.
- Antolaketa-eredu berriak eraginkorra izan nahi badu, ikasleek aukera izan behar dute plangintza komunean dauden edozein ikastetxetan matrikulatzeko, baldintza berberetan.
- Horrek berarekin dakar sortuko den eredu-bateratzailearen plangintzan dauden ikastetxe guztiek finantzaketa nahikoa jasotzea, oinarritzko hezkuntzan (0-18 urte) gutxienez; ekitatea (behar handiagoa duenari laguntza handiagoa eskaintzea) eta herritarren arteko kohesioa izango dira horretarako iparrorrazak.
- Jarraipen gardena izan behar luke finantzaketa horrek.



Zerk bultzatu gaitu proposamena egitera?

Hezkuntza hobetu nahi bada, hezkuntzaz hausnartu behar da, eztabaidatu, adostu. Hik Hasin etengabeko gogoetagaia da hezkuntzaren hobekuntza: zer indargune dituen, zer ahulgune, zer norabide duen, zer garapen ari den izaten azken hamarkadetan, eta abar.

Hausnarketa horietatik abiatu, eta hezkuntza-eragile garen aldetik, orain arteko gure jardunean pauso bat harago emateko beharra sentitu dugu: Euskal Herriko hezkuntzan behar ditugun aldaketak eragiteko indar eta bultzatzaile egiteko premia sentitu dugu, administrazioetatik zer dekretu, zer erreforma edo zer lege berri etorriko den zain geratu gabe. Ildo horretatik, gure hausnarketan sakontzea eta beste hezkuntza-eragileekin nahiz administrazioekin partekatzea erabaki dugu. Diagnosi honetatik abiatu gara:

Zer arlotan asmatu da?

- Oraindik bazterketa sozialeko egoerak pairatzen dituzten kolektibo eta ikasleak badiren arren, gaur eta hemen, haur guztiek dute eskolatzeko eskubidea bermatua, alfabetatuak izatekoa eta derrigorrezko ikasketak egitekoa.
- Aurrerapen handia egin da eskolaren bidez herritarrak euskalduntzen.
- Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen proposamena hezkuntza eragile nagusien artean adostu da.
- Gure herriko curriculum propioa gauzatzeko ahalegina egin da.
- Heziketa zentroetan egon diren inizatibek eta elkarrekin lan egiteak hezkuntza hobetzeko balio izan dute.
- 0-3 urte bitarteko haurrekin lanean ari diren profesionalen prestakuntzan aurrerapausoak egin dira, bai zaintzan eta baita hezkuntzan ere.
- Lanbide Heziketan egiten ari diren ikerketak eta proiektuen garapena.
- Profesionalen aldetik, haurren heziketa prozesuan familiariek izan behar duten garrantziari buruzko kontzientzia handitu da.
- Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa herri eta pertsona gisa ditugun eskubideetan oinarritua adosteko borondatearen erakusgarri da.

Zer arlotan hobetu behar da?

- Eskolak ez dira gai izan ikasleen portzentaia handi bat euskalduntzeko.
- Hasierako mailetan ikasleak euskalduntzeko ahalegin eta inbertsio handia egin ondoren, derrigorrezko hezkuntza aldiaren amaieran, batxilerran eta heziketa zikloetan, sistemak berak “deseuskalduntzen” ditu gaztelaniazko edo frantsesezko ereduak bultzatuz eta euskalduntze prozesua ahulduz.
- Irakasteko erabiltzen diren testuliburu eta bestelako material ugari ez dute errespetatzen euskal kultura, eskubide berdintasuna, ingurumena edota generoen arteko parekidetasuna.
- Gure herriko curriculum propioa ez da orokortu praktikan.
- Geletan ematen den aniztasunari erantzuteko estrategia eta baliabide nahikorik ez da jarri, eta migratzaileen kontzentrazioa eskola jakin batzuetan gertatu da.
- Oinarrizko konpetentzien garapena bermatuko lukeen marko metodologiko koherenterik ez dago erreferente gisa.
- Burokratizazioa: gestioaren kalitateari gehiegi erreparatu zaio eta gutxiegi lidergo pedagogikoari.
- Ikastetxeetako hezkuntza baldintzatzen duten hainbat neurri administrazioak hartu ditu. Horrek eta irakasle-riaren egonkortasun ezak zailtasun handia sortzen dute hezkuntza proiektua garatzerakoan.
- Zentroen autonomia ez da handitu.
- Formazio iraunkorra sarri askotan maila pertsonalean geratzen da eta, ondorioz, ikastetxeetako hezkuntza proiektuak ez dira gauzatzen eta sendotzen.
- Gure artean eredu edo esperientzia alternatibo interesgarriak sortu dira, eta haien berri zabaltzeko ahalegina ere egin da, neurri batean. Edonola ere, ez dugu lortu haien arteko sare bat sortzerik, ezta ikerketarako eta analisirako esperientziatzat edo proiektu pilotutzat hartzerik ere. Ez dugu autonomiarik horrelako ekimenak normaltasunez gauzatu ahal izan daitezen, eta ofizialtasunaren barruan tokia egin diezaiegun, eta okerrena da behar dugun autonomia hori aldarrikatzeari ere utzi egin diogula.
- Jolastuz ikasten da, ikasketa emozioetatik baizik ezin

GAIA: HEZKUNTZA-PROPOSAMENA



baita abiatu; baina gure eskoletan jolasteko, ekimena izateko, barre egiteko aukera gutxi dago.

- Aurkakoa aldarrikatzen den arren, eskolek ikasleak uniformizatzen dihardute, neurri batean behintzat. Programak lehenesten jarraitzen dugu, eta horren ondorioz, ez dugu haur bakoitza den horretan errespetatzen, ezta haren erritmoa eta interesak ere. Arloka eta mailaka zehaztutako curriculumean enkorsetatzen dugu jakintza eta ikaskuntza prozesua, eta modu horretan, haur bakoitzaren ezaugarri eta interesetatik urrundu egiten gara, eta oharkabean, haurrari berez duen ikasteko grina itzalarazten diogu.
- Espazioaren antolaketa murriztailea egiten du ohiko ikasgelak, eta haurrek mugitzeko askatasun gutxi dute. Naturatik urruntzen ditugu haurrak, eta gero Agenda 21eko programen bitartez sentsibilizatu nahi ditugu, ingurumenarekiko arduraz jokatzen ikas dezaten.

Ikusten ditugun arriskuak

- **Zatiketa linguistikoa.** Bitarteko nahikorik ez dago ikasle askoren oinarritzko euskalduntzea lortzeko. Ikasle horiek guztiak desabantaila egoeran uzteko arriskua dago.
- **Zatiketa soziala.** Hezkuntza Sistema sareka antolatuak, baldintza desberdinetan tratatuak, sailkapena, liskarrak eta banaketa soziala dakartza, eta, kasu batzuetan, bazterketa.
- **Hezkuntza proiektuen indargaltzea.** Eskolen beharrei ez erantzuteak (legedia, babes falta, bitartekoen murrizketak...) indarra galtzea, desanimoa eta desilusioa ekar dezake.
- Gaur egun, administrazioaren erabaki ahalmena hain handia izateak pasibitatea sor dezake, **administrazioak zer erabakiko zain gelditzeko arriskua.**



“Ezin dugu haurrarekin egon gure
buruarekin egon gabe”

ELKARRIZKETA: MAPI URRESTI

HARREMAN PSIKOMOTRIZISTA

Hik Hasi-k antolatuta, “Psikomotrizitate erlazionala” izeneko ikasturte osoko formazioa ematen ari da Mapi Urresti. Psikologoa, sexologoa eta harreman psikomotrizista da eta hamar urteko esperientzia du familiekin, irakasleekin nahiz hezkuntzako profesionalekin lanean. Aurrez irakasle izana da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan nahiz Unibertsitatean. Bere eguneroko jardunean, haurra eta helduaren arteko

harremanean jartzen du arreta, uste baitu haurraren garapena egokia eta osasuntsua izan dadin, helduarekiko harremana segurua izatea funtsezkoa dela. “Haurraren garapena kognitiboa da, baina baita emozionala, morala, motorra, soziala... ere. Garapen integralaz hitz egin behar da. Integrazio horretan helduarekiko harremanak lagunduko dio zailtasunak gainditzen eta dituen ahalmenak garatzen”.

**Psikomotrizista zara eta psiko-
motrizitate erlazionalaren arloan
diharduzu. Aurten, gainera, lehen
aldiz, psikomotrizitate erlazionalaren
inguruko formazioa emango duzu Hik
Hasi-rekin. "Psikomotrizitate erlazio-
nala" kontzeptuak zer esan nahi du
zehazki? Zer eranstean dio "erlaziona-
la" hitzak "psikomotrizitate"-ari?**

Psikomotrizitateak haurrari espazio bat eskaintzen dio berak izan nahi duena izateko. Gero eta gutxiago, baina oraindik ere, maiz, eskolan arau asko jartzen dizkiegu umeei, psikomotrizitatean, berriz, arau bakarra dago: ondo pasatzeko norbere burua zaintzea eta aldame-nekoak zaintzea. Arau sinple hori bakarrik daukanez, psikomotrizitateak umeari aukera ematen dio bere beharrak eta desioak ateratzeko eta bera den bezala azaltzeko. Beraz, testuinguru horretan haurrak barruan duen gutzia ateratzen du, berak dituen proiektzio denak, kontzientek zein inkontzientek.

Eta erlazionalarekin esan nahi dena da guk garrantzia ematen diogula loturari, binkuloari. Haurraren garapena egokia eta osasuntsua izan dadin, helduarekin harreman segurua izatea funtsezkoa da berarentzat. Haurraren garapena kognitiboa da, baina baita emozionala, morala, motorra, soziala... ere. Garapen integralaz hitz egin behar da. Integrazio horretan helduarekiko harremanak lagunduko dio zailtasunak gainditzeko eta dituen ahalmenak garatzen.

Beraz, psikomotrizitate praktikari buruz ari zara hizketan, alegia, eskola ordu formalen barruan egiten den psikomotrizitate saioari buruz?

Bai, hala da. Eskola batzuetan gero eta gehiago ari gara ikusten psikomotrizitatea gela barruan txertatzen ari direla. Zenbait pedagogia berrirekin hori egiten da. Baina niretzat oinarria da norbera den bezalakoa izateko aukera hori haurrei ematea, eta minik hartuko ez duten espazio bat eskaintzea, hau da, fisikoki zein afektiboki seguru eta zainduta sentituko diren espazio bat. Hala, haurrak bera den hori atera dezakeelako. Alegia, haurrak izan dezala askatasuna nahi duen hori egiteko minik hartzen ez duen

eta minik ematen ez duen bitartean.

Psikomotrizitatea haurrak berez dakar, nolabait esatearren umea mugimenduak darama psikomotrizitate-ra. Baina psikomotrizitateko saioan haurrak ateratzen du berak duen tresnarik inportanteena: jolas librea. Jolasarekin garatzen da haurra. Eta bere ahalmenak ateratzen ditu eta dituen gaitasun kognitiboak, moralak, sozialak... denak batera garatzen ditu. Jolasak funtsezko garrantzia hartzen duen eremua da psikomotrizitatea. Baina eremu horretan helduon begiradak eta gure interbentzio hezitzaileak lagunduko diote haurrari garatzen.

Psikomotrizitate erlazionalaz gain, Hik Hasi-rekin emango duzun formazioan, aukera berdintasuna eta emozioen hezkuntza ere landuko dituzu. Azal dezakezu zer-nolako lotura duten beste kontzeptuok psikomotrizitatearekin?

Gaur egun badakigu gure emozioek gure jarreraren zati handi bat bideratzen dutela. Hortaz, esparru libre batean, mugimendua dagoen eremu batean, beti daude emozioak. Denbora guztian agertzen zaizkigu hainbat emozio: poza, zalantzarik gabe, haurrek psikomotrizitatean plazerarekin konektatzen dutelako eta hori delako oinarria. Baina horrez gain beste emozio batzuk ere agertzen dira: beldurra, lotsa, inbidia, haserrea, frustrazioa... Haurrak emozio horiek adieraztea eta bizitzea, besterik gabe da inportantea, hala umea hainbat emozio kanporatzen ari delako. Hortik abiatuta, hainbat kasutan helduaren esku-hartzeak lagundu egin diezaioke emozio horiek modu inteligente batean bideratzen: adibidez, haserrearen energia ondo bideratzen. Edota, beste adibide bat jartzearren, haur batek beldurra baldin badu salto egiteko orduan, helduarentzat helburua izango da haurra beldur hori gainditzeko gai izatea. Beraz, gure konfiantzarekin eta gure begiradarekin esku-hartzeak egin ditzakegu lasaitasunez salto egin dezan, eta harro senti dadin egin duenarekin eta emozio hori bizi dezan, bere lorpena sentitu dezan gure begiradaren bidez, hala lortu duen hori egiten jarraitu

nahiko baitu, modu autonomoan, aurrerantzean ere.

Hori arlo emozionalari dagokionez, eta hezkidetzaz zer esango zenuke?

Gu saiatzen gara pertsona modu integralean gara dadin. Eta, horrek zer esan nahi du? Bada, adibidez, mutilek zein neskek haserrea berdin bizitzeko aukera izatea, edota negarra modu berean bizi ahal izatea... Hori da psikomotrizitateak baimentzen duena. Oro har, esan dezakegu hezkuntza nahiko gidatuta dagoela neskek euren agresibitatea atera ez dezaten, bada, guk psikomotrizitatean hainbat ekintza bideratzen ditugu agresibitate hori (minik eman gabe eta modu ludiko batean), kanporatzeko, ezetz esaten ikas dezaten, eta euren gauzak defendatzen —neskek zein mutilek—. Era berean, jolas sinbolikoaren munduan sartzen direnean eta zenbait rol hartzen dituztenean ere berdin egiten dugu, esku hartzen dugu estereotipoetatik atera eta rol ezberdinak bizi eta esperimentatu ditzaten.

Psikomotrizitatearen oinarrian jolasa dagoela esan duzu. Zer ematen dio jolasak haurrari?

Haurrek jolastu egiten dute, horixe delako euren modua mundua ezagutzeko eta baita euren garapenerako ere. Eta, lehen aipatu dudako moduan, garapen hori integrala da, osoa: garapen motorraz, sozialaz, emozionalaz, moralaz... ari naiz. Denerako balio du jolasak, bizikidetzarako, identitatea lantzeko... Jolasean, nahi gabe ere plazera sartzen da jokoan. Guretzat oso garrantzitsua da jolas hori librea izatea, guk garrantzia handia ematen diogulako alderdi emozionalari eta jolas libre horretan haurrak islatzen dituelako bere bizipenak, hau da, bizitzan gertatzen zaizkion gauzak ateratzen ditu jolasaren bidez, eta hala, integratu egiten ditu, ulertu egiten ditu eta, behar izanez gero, gainditu egiten ditu. Horretarako jolas librea behar da, hain zuzen ere, jolas libreak jolas sinbolikora daramalako haurra eta jolas sinbolikoak inkontzientera, eta horrekin bere korapiloak aterako ditu. Guk hori ikusten badugu haurrak zailtasunen



bat duela, adibidez, frustrazioa ez duela ongi bideratzen, jolasaren bidez zailtasun horiek gainditzeko lagun diezaiotegu.

Jolasaren barruan, beraz, jolas sinbolikoak sekulako garrantzia hartzen du psikomotrizitatean.

Bai, hala da. Jolas sinbolikoan haurrak paper bat interpretatzen du eta sinbologia batean sartzen da: adibidez, medikuetara jolasten duenean, behar bada beste haurraren gorputza nolakoa den ikertzen du, baina besteak bere intimitatean sartzen noraino uzten dion ere esperimentatzen du. Alegia, berak errealitatean egin ezin duena modu sinboliko batean egiten du. Beste adibide bat jartzeko, haurrak jolastu dezake otsoetara eta otsoak beste norbait hil dezake edota jan. Hori errealitatean ezinezkoa den zerbait da, baina haurrak horrela bere beharrak eta kezak proiektatzen ditu, eta barruko beldur zein ezinegonak gainditzeko balio diezaiotke horrek.

Nola antolatzen dituzue espazioak haurrak jolasarekin konekta dezan?

Gelan hainbat espazio antolatzen ditugu, baina ez dugu espazio hori zuzentzen. Haurrari aukera ematen diogu espazio batean zein bestean modu anitzetara egoteko. Espazio ho-

rietako bat espazio sensoriomotorra da, mugimendua eta plazera sustatzeko sortua, eta hor tonua lantzen dugu, haurrak jakin dezan tonu altuan egoten: eskalatzen, salto egiten... gorputzak sortzen duen ahalmen horri guztiari bidea ematen zaio hor. Beste aldean, kaxak eta antzekoak jartzen ditugu, eta hor lasaitasuna lantzen dute haurrak. Zertarako eremu hori? Etxeak egiteko, jolas sinbolikoan sartzeko, baina baita ere kontentzio jolasak egiteko, lasai egoten ikasteko, tonu baxuan, eta helduaren begirada eta afektu hori sentitzeko. Baina, esan bezala, ez dugu bideratzen inolako jolasik, baizik eta hainbat modu sortzen ditugu haurrak bere desioarekin konekta dezan eta premia sentitzen duen eremura joan dadin. Espontaneotasunari leku egin nahi diogu, naturaltasunari, bere desioan sartzeari, maiz eguneroko hezkuntza eta sozializazioan kontrolean egon behar duelako.

Psikomotrizitatearekin haurraren arlo afektibo, emozional, motor edota soziala lantzen direla diozu, baina moralaz ere hitz egiten duzu.

Bizikidetzak sustatzeko haurrak jakin behar du arau batzuk badaudela, bizikidetzako arau batzuk, eta nik horri deitzen diot morala. Adibidez, arau moral bat litzateke inori

“Jolas librearekin haurrak bere zailtasunak islatzen ditu, integratu egiten ditu, ulertu egiten ditu, eta behar izanez gero, gainditu egiten ditu”

“Guk ez dugu bideratzen inolako jolasik, baizik eta hainbat modu sortzen ditugu haurrak bere desioarekin konekta dezan eta premia sentitzen duen eremura joan dadin. Espontaneotasunari leku egin nahi diogu, naturaltasunari, bere desioan sartzeari, maiz eguneroko hezkuntza eta sozializazioan umeak kontrolean egon behar izaten duelako”



ez minik ematea, edota aldamenekoarekin enpatizatzea, edota besteak eraikitakoa ez puskatzea... Baina haurrak bizikidetzako arau horiek errespetatzen ikasten du ez helduaren inposiziotik, baizik eta bere bizipenetik. Adibidez, haur batek beste batek eraikitako dorre bat puska dezake, baina akaso gero, bestearen espresioa ikusten duenean, lagundu egiten dio dorre hori eraikitzen.

Zein litzateke helduak jokatu beharreko papera testuinguru horretan guztian?

Helduak lehenik eta behin segurtasun fisikoa eta afektiboa bermatu behar ditu. Segurtasunak esan nahi du haurrak seguru sentituko direla eurak diren bezala azal eta porta daitezen. Horrek eskatzen du batetik, arau asko ez edukitzea; eta bestetik, minik hartuko ez duten espazio bat edukitzea. Zerbait erortzen baldin bada, ziurtatuta edukitzea ez dutela minik hartuko, edota salto egiten badute babestuta egongo direla, etab. Zeren bestela gure begirada etengabe egon beharko litzateke esaten "hori ezin duzu, hori bai, beste hura arrisku-tsua da...". Hori segurtasun fisikoari dagokionez. Segurtasun afektiboak, berriz, esan nahi du haurrak garatu dadin guregan, helduengan, konfiantza izan behar duela, lotura osasuntsu bat eraiki behar dugu haurrarekin,

horrek emango baitio aukera bera den bezala azaltzeko. Segurtasun afektiboan sartzen da gure begirada ez epaikor eta harreman segurua, alegia, haurra begiratzea dituen ahalmenetan oinarrituz, eta jasotzea bere jolas horretan uzten duen guztia. Hortaz, haurrak berak dakarrena atera ahalko du: ahalmenak baldin badira, gartzten lagunduko diogu; eta zailtasunak baldin badira, zailtasun horretan akonpainatuko dugu.

Helduaren akonpainamenduaz, begiradaz, jolaserako bitartekari lana egiteaz... hitz egiten duzu. Azken batean, helduaren interbentzioaz ari zara. Haurren jardunean esku hartzea beharrezko ikusten duzu?

Nik uste dut haurrak berez gaitasunak badituela eta ingurune egoki batean gaitasun horiek garatuko dituela, baina horretarako heldua behar du. Haurra ahalmen askorekin jaiotzen da, baina ez badago helduarekin harremanik, elkarrekintza positiborik, eta helduaren aldetik begiradarik ume horrek ez ditu ahalmen horiek garatuko. Beraz, nik uste dut psikomotrizistaren papera ez dela egiten egotea, baizik eta dela egoten egotea. Egote horretan lehenik behatu egin behar da eta haurrak behar baldin badu, errespetuz baina interbenitu egingo dugu. Esku-hartze horiek hezitzaileak izango dira. Ezin duguna da interbentzio

bat egin egiteagatik edota helduaren behar bat ase nahi dugulako. Izan ere, askotan helduaren beharrak dira haurrarekiko harremana era batera edo bestera eraikitzea garamatzatenak eta hori ere oso kontuan izan behar dugu. Zentzu horretan, inportantea da gai izatea desberdintzeko zer den gurea eta zer haurrena. Nik beti esan ohi dut ezin dugula haurrarekin egon geure buruarekin egon gabe.

Zer-nolako eragina dauka norberaren historia psikoemozionalak haurrarekin lan egiterako orduan?

Eragin handia dauka. Horregatik guk zenbait saio bibentzial egiten ditugu gure baitako haurrarekin konektatzeko. Gure barneko haur horretan ikusten ditugu zeintzuk diren gure behar psikoemozionalak, baina une honetan emozionalki nola gauden aztertzeko ere balio digu: zein zailtasun ditugun, zein ahalmen... Nik izugarrizko garrantzia ematen diet ahalmenei, ahalmen horiei esker gainditzen ditugulako gure zailtasunak. Horregatik garrantzitsua da irakasleak edo psikomotrizistak haurrei dituzten ahalmenetatik abiatuta begiratzea. Gure baitako haurrarekin konektatze horrek, era berean, laguntzen digu psikomotrizitate saioetan aurrean ditugun umeek egiten dituzten ekin-tzek eta jarduerak zein zentzu duten jakiten. Adibidez, gure saio bibentzialesan esperimenta dezakegu zer sentitzen dugun kaxa baten barruan sartuta, eta horrekin jakin gure haur bat kaxa batera sartzen denean, zein behar dagoen horren atzean, zergatik egin duen hori.

Umearen gorputzak sekulako garrantzia hartzen du psikomotrizitatean, batez ere, lehen urteetan; eta psikomotrizistarenak?

Lehen esan dudan bezala, psikomotrizitatean nahi duguna da haurra bera den bezalakoa izatea, eta bere desioak ateratzea, bai kontzientek eta bai inkontzientek. Hitzak askotan ez digu uzten horretan, pentsamendu logiko arrazionalera eramaten gaituelako. Aldiz, guk nahi duguna da haurrak alderdi emozionalarekin konektatzea. Gero beste gauza bat litzateke sentitzen dugunari hitza

jartzea, baina lehendabizi atera egin behar dugu sentitzen duguna. Eta sentitzen duguna ateratzeko, hitzik ez dugu behar. Hortaz, psikomotrizitatean harremana toniko korporala da, nagusiki. Gu saiatzen gara haurrekin ez hitz egiten, baizik eta gorputzaren bidez adierazten. Esate baterako, haur bati mina hartu duelako besoak zabaltzen dizkiogunean, haurrari informazio bat ari gatzazkio bidaltzen. Azken batean, gorputza da benetako harremana eta haurrak adin horretan gorputzetik eta emozioetatik askoz ere hurbilago daude arazoetik eta logikatik baino. Orduan, helburua da haurrei uztea euren gorputzaren bidez hitz egin dezaten eta guk ere beste horrenbeste egitea, behintzat gure gorputza egon dadila eskuragarri eta erabilgarri haurrentzat. Jakinik noski, eskuragarritasun hori haurraren adinaren arabera era batekoa edo bestekoa izango dela.

Espazioaren formaz gain, bertako materiala ere garrantzitsua izan ohi da. Zein material mota erabiltzen dituzue?

Materiala orokorrean biguna da, haurrek jolas librean minik ez hartzeko. Bestetik, material horrek sinbolizazio mota desberdinak egiteko balio du, baina nagusiki bi nabarmentzen ditugu: erlazionalak eta ordezkariak. Hori [Andre] Lapierrengandik hartutako ideia da. Objektuak alde batetik erlazionalak izan daitezke, hau da, guk erabil ditzakegu objektuak haurrekin harremana bideratzeko. Adibidez, haur bat ez bada ateratzen espazio batetara, guk bota diezaiokegu pilota bat gure harremanaren bidez atera dadin espazio horretara eta jolastu dezan. Hor objektua darabilgu bitartekari gisa, umearekin erlazionatzeko. Bigarren objektu mota ordezkaria litzateke. Adibidez, ume batek hartzen du baloi bat eta ez du sekula uzten. Baloi horretan ume horrek bere emozioak eta bere sentimenduak jartzen ditu. Hortaz, baloi hori berarentzat hartuz eta baloi hori defendatuz, nolabait, bere burua defendatzen ari da. Beste haur batek har dezake pilota bat edota oihal bat, horrek segurtasuna ematen diolako.

Nolabait segurtasunaren erreferente diren sinbolo ordezkariak dira.

Hor zentzua dauka jakiteak haur batek ekartzen dizunean objektu bat, ez dela objektua bakarrik, objektu horren atzean berak jarri dituela sentimenduak, emozioak, afektua... Eta ez da gauza bera haur bati jartzea oihal bat kapa moduan begiratu ere egin gabe edota jartzea begietara begiratuz, irribarre batekin eta gure jarduerarekin “ikusten zaitut eta inportantea da zuretzat jolas hau, bada niretzat zu zara inportantea”. Erlazio horretan egoten jakitea da garrantzitsua. Guk, normalki, objektua bakarrik ikusten dugu, baina objektu horrek badu haurrentzat zentzua. Eta jartzen du proiektzio bat, eta proiektzio horretan jartzen du bere behar bat. Hortaz, hori begiratzea soilik jada asko egitea da haurrari laguntzeko.

Psikomotrizitate saioetan erabiltzen duzue protokolo zehatzik?

Psikomotrizitateko saioa beti hasten da gomazko blokeekin eraikitako hesi edo pareta botatzen. Eta horrek balio sinbolikoa du. Ere libre batean sartzerako doala adierazten dio haurrari, alegia, datorren espazio horretatik ezberdina izango den mundu batera doala. Saioak hasiera, erdia eta bukaera ditu, euztura bat eman nahi diogu haurra laguntzeko. Hasieran zapatak kentzen dira... arropak... eta hori ere inportantea da, zeren askatasuna adierazten duen sinbolo bat da, eta zenbat eta arropa gutxiago, gorputza ere libreago izango du. Horrekin batera, hasieran kokatzeko kontsigna ematen diegu. “Ez minik hartu, ez minik eman”. Niri kontsigna hori positiboan ematea gustatzen zait: “Zaindu zure burua eta zaindu lagunak; hona ondo pasatzera gatoz”. Hala ere, saioa beste modu batera has daitekeela uste dugu, gela modu kreatibo batean prestatuz. Gela txoko edo espazio sensoriomotor desberdinetan antola daiteke, hala haurrari erronka berriak aurkezteko eta interesa eta kuriositatea pizteko. Emozio hauek oso baliagarriak dira esploratzeko, irrika sortzen dutelako eta haurrentzat ezezaguna dena edo beldurra era-

“Haurrak garatu dadin, guregan, helduongan konfiantza izan behar du, lotura osasuntsu bat eraiki behar dugu haurrekin, horrek emango baitio aukera den bezala azaltzeko”

“Askotan helduaren beharrak dira haurrekiko harremana era batera edo bestera eraikitzen garrantzitsuenak eta hori ere oso kontuan izan behar dugu. Zentzu horretan, inportantea da gaitzatea desberdintzeko zer den gurea eta zer haurrena. Nik beti esan ohi dut ezin dugula haurrekin egon gure buruarekin egon gabe”

giten dion hori gainditzeko aukera ematen dutelako. Gainera, haurrari zerbait berria eskaintzen diogunean zainduta sentitzen da.

Erdiko partean, psikomotrizitate saioa egiten da, eta orain arte aipatu dugun guztia sartzen da hor. Bukar-ran, berriz, inportantea da itxiera egitea. Saioa amaitu baino minutu batzuk lehenago abisatu egin behar zaie hurrei, hala jokia ixteko aukera izan dezaten, eta jakin dezaten denbora bat dutela behar dutena edo nahi dutena egiteko, eta tarte horretan gure begirada jasoko dutela. Horretarako, bakoitzari begietara begira esan diezaiokegu zertan ari den edo zertan ez den ari. Horrez gain, ixteko modu ezberdinak daude: izan daiteke ipuina, eraikuntzak, marrazkiak, erlaxazio txiki bat eta banan bana joan berarengana... Edozein kasutan, inportantea da ixtea. Hala, haurrak tonua jaisten du, eta beste jarduera formalagoetarako prestatzen da.

Psikomotrizitatearekin batera heziketa emozionala ere lantzen duzue zuek. Adimen emozionala diogunean, zertaz ari gara? Hain txikitatik has daiteke hori lantzen?

Gu adimen emozionala ez gara ari lantzen modu formalean, baizik eta bibentzialean. Adin honetan inportanteena da bizipenetatik egitea

lanketa hori. Haurren bizipen horiei helduok jartzen dizkiegu hitzak. Ume bat beldurrez ikusten badugu, zera esaten diogu: "Beldur zara?"... Beldur hori normalizat hartzen, ulertzen eta onartzen badugu, jada, adimen emozionala lantzen ari gara. Sentimendu hori baimentzen dugun momentutik, onartzen dugu eta ari gara lantzen. Eta umeak berak ere esperimendatzen duena da baduela baimena sentitzen duen hori bizitzeko. Geure onarpenezko begiradak eta konfiantzak barnean duen ume ausarta ateratzen lagunduko dio.

Azken batean, mugimendua emozioa da eta emozioa mugimendua (barneraka edo kanporaka). Eta mugimendua garamatza sozializatzerak. Eta sozializatze horretan arauak dauzkagu eta bizikidetzarako ezinbestean kontuan izan behar dugu aldamenekoa. Hortaz, testuinguru horretan dena da emozionala eta hurrei emozio horiek naturaltasunez bizitzen uzten diegun momentutik ari gara heziketa emozionala lantzen.

Guk formazioa egiten dugunean emozioak eta sentimenduak banan-banan aztertzen ditugu. Hauek onartu eta ulertzen ditugu, banakako funtzionamendua aztertu egiten dugu eta hala beroien erregulazio adimentsua zein den ohartzen gara. Era horretan, irakasleok emozionalki

jakintsu egiten gera eta saioetan hurrei emozioa positiboki bideratzen laguntzeko prestatzen gara.

Eta emozionalki umeak modu osasuntsu batean gara daitezen zer egin dezake helduak psikomotrizitatearen ikuspegitik?

Psikomotrizitatean baimentzen dugu emozioa, gehiagorik ez. Emozioak dira uneoro espazio horretan daudenak. Emozioak, plazerak eta pozak umeak daramatza beste gauza batzuetara. Bizipen horiek ulertzea, onartzea eta baimentzea zerbait handia da. Beste gauza bat da, gero, gatazketan esku nola hartu, edota haserrea nola kudeatu. Esate baterako, bigarren adibide horri helduta, haserrearen bizipena gure gizartean ez da oso normalizat hartzen. Haur bat haserretzea, normalki ez dugu ondo ikusten eta umeari ez diogu haserre hori kanporatzea baimentzen. Ez haserretzeko esaten diogu eta heserre horrek ondorio negatiboak ekartzen dizkio. Hortaz, askotan, psikomotrizitate gelan haserreak ateratzen dira oso modu pultsionalean. Guk laguntzen dugu jolasaren bidez agresibitate hori edo haserre hori kanalizatzen. Hasieran haserre hori modu pultsionalean aterako du, baina pixkanaka modu sinbolikoan adieraziz joango da. Eta haserre sinbolikoak umeari



(baita helduari ere) beste lasaitasun bat ematen dio.

Normalki, gizartean, emozioak ukatu egiten zaizkigu eta ukatzen zaizkigun momentutik gorde egiten ditugu, eta hori gero nonbaitetik ateratzen da, akaso ez modu ego-kienean. Maiz gertatzen da hau psikomotrizitate saioetan, egunerokotasunean kontrolatzen dugun hori guztia atzeratzen da: tristura, inbidia, kulpa, frustrazioak... Aldiz, emozioak erregulatzeko gai izateak esan nahi du emozio horren kontzientzia hartzea (sentitzen duenari hitza jartzea), ulertzea eta onartzea. Psikomotrizitateak, beraz, onarpen eta baimentze horretatik datorrenez, erregulazioan laguntzen du. Aske sentitzeko espazio bat badu, gero gela edo etxeko errutinak errazago onartuko ditu.

Heziketa emozionalarekin zuzenean lotuta dago gatazken kudeaketa.

Espazio batean, non arau bakarra den minik ez ematea eta minik ez hartzea, gatazka asko sortzen dira. Egia da, hala ere, helduarekiko lotura segurua eta konfiantzazkoa denean, gatazka gutxiago sortzen direla. Eta hori oso kontuan izatea komeni da. Horrekin batera oso inportantea da haurrak entzuten jakitea, eta behatzea zer egiten duen. Edozein kasutan, kontuan eduki behar dugu gatazka gehienak haurrek eurek kudeatzen dituztela oso modu naturalean, umeak berez enpatikoak direlako. Orduan guk beti esku hartzen dugu bata besteari mina ematen ari badira egoera hori mozteko. Baina minik ematen ari ez badira, soilik behatu egiten dugu eta gatazkara hurbiltzen gara zerbait normala izango balitz bezala. Eta hurbilpen horretan ikusten ditugu haurren beharrak zeintzuk diren. Horretarako haurra ongi ezagutu behar dugu eta jakin zein proiektu hezitzaile dugun berarekin. Adibidez, inoiz defendatzen ez den haur batek objektu bat hartzen baldin badu, esango edo sentiaraziko diozu: “Tira, zurea da!”. Izan ere, haur horrek defendatzen ikasteko beharra dauka. Hor dago interbentzioaren zentzu hezitzailea. Haurrak baldin badaude pareko egoera batean

eta ohiko liskar bat bada, haur horien emozioak jasotzen ditugu —hase-rra, frustrazioa, samina...—. Izan ere, jolasak ematen digun beste ikasbide bat da beti ezin dugula nahi dugun hori lortu, eta hain zuzen ere, bizitza horrelakoxea da, baldin eta besteekin elkarbiziko bagara.

Heziketa emozionalarekin batera, hezkidetzaren erlazioak, txikitatutako hasita. Haurren sexua kontuan hartu gabe hezteaz diharduzu, baina nola egiten da hori? Zein interbentzio mota egiteko behar dira?

Genero berdintasunari dagokionez gauza asko esan daitezke, ikastaroan ondorengo puntuak lantzen ditugu: identitatea, gorputzaren bizipen positiboa, genero rolak, genero estereotipoak, aniztasuna, afirmazioa (“ez beti da ez”)...

Nik uste dut oinarrian dagoen auzietako bat identitatearena dela, alegia, norbera den bezalako izateko aukera edukitzea, ez izatea neska edo mutil. Neska izateko hamaika modu daude, mutil izateko beste hamaika eta intersexual edo transgeneroa banaiz horrela bizitzeko eskubi-dea dut. Alegia, nik gona jantzi nahi badut, gona jantzeko aukera izatea. Hori baimentzearekin soilik haurrari sekulako aukera ematen diogu, izan ere zenbait esparrutan egin ezin dituen gauzak hemen egin ditzake, eta berak jolastu dezake nahi duen horretara. Espazio bat emanda bera izan daiteke nahi duena eta egin ditzake proiektzioak eta bere beharrak asetu ditzake. Psikomotrizitatean horretarako aukera ematen zaie eta epaitzen ez diren momentutik haurrak hori egin egiten du. Mutil asko jantzen dira gonarekin, mutilak nahi badute printzesak dira eta neska asko dira piratak edo superheroiak. Hor inportanteena da aukera hori ematea eta gainera gure begirada indartzaile izatea: “Horrela ere ikusten zaitut eta horrela ere onartzen zaitut”.

Horrekin batera kontuan izan behar dira umeek hartzen dituzten rolak ere. Jolas sinbolikoan sartzen direnean, txiki-txikitatik, zein rol hartzen dituzte? Bada gizartean esleitzen zaizkienak. Neskak izan behar du jasotzen duena, etxeko ama, erizaina

... Eta mutilak izan behar du lanera doana, mekanikoa, medikua ... Rol horietan ere interbentzioak egiten ditugu. “Badakizue mutilek ere mahaia ipini dezaketela ezta?”, adibidez. Hori bai, beti errespetuz.

Aipatutako guztiarekin batera garrantzitsua da emozioak berdin kudeatzea ere, alegia, ni haserretu naiteke neska edo mutila izanda, edo negar egin dezaket neska edo mutila izanda, edo neska sentitu eta pitilina izan (edo alderantziz). Emozio denak dira onak, pertsonok berdin sentitzen ditugu baina gizarteak sexuaren arabera ezberdin erregulatzen erakusten digu. Emozioak bizitzea baimenduz —kontrolatu gabe—, horrekin bakarrik berdintasuna ari gara sustatzen, eta gainera, gauza askoren muina horixe da, izan ere gure jokabideak nagusiki emozioek bideratzen baitituzte. Adibidez, neskek etxe bat egin dute eta mutilak sartu eta etxea kentzen diete, ondorioz, neska guztiak ateratzen dira etxe horretatik. Kasu horretan inportantea da neskek haserrearekin konektatzea, eta esatea “guk hau defendatuko dugu” eta “ez da ez”. Ikas dezatela agresibitate horretan jartzen, eta hori landu behar da txiki-txikitatik... Afirmatzen ikasteko “ez beti dela ez” ikasteko, edo “hau nirea dela eta defendatuko dudala”... Hori dena jolasaren bidez landu daiteke. Hau ahalduntze bat da (neska eta mutilentzat) eta txiki-txikitatik ikasi daiteke. Eta mutilen kasuan beste horrenbeste. Zeren oraindik ere mutilak tamalez emozioak ez kanporatzerik bideratzen ditu eskolak, ezin dira neskei esleitzen zaizkien jolasetan ibili, eta psikomotrizitatearen bidez horretarako aukera ematea ere inportantea da, zaintzaren arloarekin ere konekta dezaten, eta hala, nahi dutena izateko aukera gara dezaten. Gizarteak hautatzeko eta esperimentatzeko aukera gutxi ematen digula iruditzen zait, haurtzarora zuzenduegia dago. Psikomotrizitate erlazionalak jolas libre eta espontaneoan aritzea du helburu, eta hein handi batean, hezkuntza formalak mugatzen duen guztia askatzeko bide izan nahi du.

ESPERIENTZIAK

ELEANIZTASUNA

“Etxean euskara erabiltzen duten ikasleek emaitza hobeak izan dituzte euskaraz zein gaztelaniaz”

Askotan hitz egiten da elebitasunaren onurez. Neurolinguistikak argi eta garbi utzi du eleaniztunen burmuinak badituela onura batzuk, bai eta estrategia berezi batzuk ere, elebakarrek ez dituztenak. Beste hitz batzuetan esateko, eleaniztunen burmuinak egunerokotasuneko erronkei aurre egiteko egitura batzuk ditu. Gizarte mailan ere, begi-bistakoak dira hizkuntza bat baino gehiago jakiteak dakartzan abantailak. Baina, eskolan, hobeto ibiltzen dira eleaniztunak elebakarrak baino?

Ikerketa hori egiteko asmoa zuten Maialen Urbietak Agirrezabalagak eta Mikel Goikoetxea Gazagae-txeberriak, “Eleaniztasuna eta Hezkuntza” masterreko ikasleek. Zaila egin zitzaizela onartu dute; izan ere, ia ezinezkoa da gizarte honetan



Maialen Urbietak

UEUko on-line irakaskuntzako arduraduna

gaur egun elebakarrik aurkitzea. Hori dela eta, ikerketa alderdi espezifikoago batera bideratzea erabaki zuten. Bi xede zituen ikerketak: lehena, etxetik euskara zeramaten haurren eta etxetik beste hizkuntza bat zekartenen arteko desberdintasuna ikustea; eta, bigarrena, hizkuntza batetik bestera (euskaratik gaztelaniara eta alderantziz) transferitzen ziren elementuak aztertzea.

Ikerketaren bi atalak lantzeko, 114 ikasleren bina idazlan hartu zituzten aztergai (euskarako testu bat eta gaztelaniako beste bat). Ikasle horiek Bizkaiko hiri bateko eskola publiko batekoak ziren. Hamar, hamaika eta hamabi urteko ikasleak ziren, eta, beraz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan zebiltzan. Hirian, gaztelania da nagusi, eta euskara, berriz, hizkuntza gutxitua da. Hala ere, euskara da eskolako hizkuntza, D erudian baitaude ikasle guztiak.

Ikerketaren lehenengo atala burutzeko, bi ikertzaileek, Urbietak eta Goikoetxeak, bakoitzak bere aldetik ebaluatu zituzten 228 idazlanak. Horretarako, kode sistema bat erabili zuten: ikasle bakoitzari zenbaki bat eman zioten, eta, euskarako zein gaztelaniako testuei izena kenduz, zenbakia jarri zieten. Bakoitzak bere aldetik ebaluatzeko, errubrika bat erabili zuten, Jacobsen errubrika (1981). Errubrika horren arabera, zenbaki bat esleitu behar zaio atal bakoitzari: edukiari, antolaketari, ortografiari,



hizkuntza mailari eta hiztegiari.

Ikertzaile bakoitzak zenbaki bat esleitu zion, errubrikari eta adierazleei jarraituz. Ondoren, emaitza guztiak banan-banan alderatu zituzten, eta puntuazio desberdina jaso zuten idazlanak edo atalak banan-banan ebaluatu zituzten berriro. Horrela, ateratako emaitzak esanguratsuak zirela esan dezakete.

Jasotako zenbaki guztiak (ebalua-tu zituztenak eta ikasleen datuak) ordenagailuko estatistika-programa batean sartu zituzten, eta, emaitzei erreparatu, emaitza orokor hauxe atera zuten:

Etxean euskara erabiltzen zuten ikasleek beste edozein hizkuntza erabiltzen zutenek baino nota altuagoak jaso zituzten bi idazlanetan. Idazlanaren arlo guztietan, emaitza hobeak zituzten: testua antolatzen, ortografian, edukian, erabiltzen zuten hizkuntzan eta hiztegian. Beraz, etxean euskara erabiltzen zutenek gaztelania edo beste hizkuntza bat erabiltzen zuten ikasleek baino emaitza hobeak izan zituzten. Hona hemen datu batzuk: etxean euskara erabiltzen zuten ikasleek batez beste % 71,45 atera zuten euskarazko idazlanetan. Bestalde, etxean gaztelania erabiltzen zutenek % 65,88 atera zuten euskaraz. Gaztelaniako testuetan, etxean euskara erabiltzen zutenek % 78,3 eta gaztelania erabiltzen zutenek % 73,58

atera zuten.

Erraza egin zaie emaitza horien azalpena ematea, jada frogatuta baitaude txikitatik elebidun izateak dakartzan onurak. 10, 11 eta 12 urte zituztenerako, ikasle guztiak ziren elebidunak edo eleaniztunak, baina txikitatik elebitasun horrekin bizitzeak ikasleei ekarritako onurak agerian geratu ziren emaitzetan ere. Badituzte hainbat hipotesi, azalpen honetan sakontzeko, etxeko hizkuntza eta eskolako bera izateak (euskarak) txikitatik gelan gertatzen zenaren berri izaten laguntzen baitzien. Hortaz, ikasle euskaldunek Haur Hezkuntzan sartzean gelan gertatzen zen ororen berri zuten, hizkuntza-arazorik izan ezean, abantaila hartzen baitzuten. Dena den, hori hipotesi bat baino ez dela diote, ez baitute izan frogatzeko abagunerik.

Ikerketaren emaitza esanguratsue-na hori izan baldin bazen ere, beste hainbat emaitza lortu zituzten. Mutilek baino nota hobeak atera zituzten neskek, eta 12 urtekoek 11koek eta 10ekoek baino hobeak. Ikerketaren xedea elebitasuna zenez, ez dute sakondu datu horietan.

Ikerketaren bigarren xedea lantzeko, parez pare jarri zituzten ikasle bakoitzaren bi idazlanak. Horrela, agerian geratzen ziren ikasle bakoitzaren idazteko estrategiak. Hainbat atal aztertu zituzten: testua paragrafotan

antolatzen zuten edo ez, izenburua jartzen zuten edo ez, lokailuen erabilerara, sinadura eta sarrera amaierako esaldiak. Transferigarritasuna bi hizkuntzetako joeren bidez aztertu dute, erabiltzen duten hizkuntza dena dela ere, joera bera duten ikusiz; adibidez, euskaraz paragrafotan idazten badute, gaztelaniaz ere horrela egiten duten ikusiz.

Datu horiek ere SPSS estatistikako programan sartu zituzten, eta ikusi zuten ikasleen estrategiak guztiz transferigarriak zirela hizkuntza batetik bestera. Datu batzuk emango ditugu: % 88k joera bera erakutsi zuten bi hizkuntzetan izenburuarekin, bietan jartzea erabakitzen baitzuten, edo inon ez jartzea. Ikasleen % 92k berdin jokatzeko zuten bi hizkuntzetan paragrafoei zegokienez ere, bietan erabiltzen baitzituzten, edo bietan ez. Datu horiekin, ikusi genuen ikasleek hizkuntza batean joera bat bazuten bestean ere berdin jokatzeko zutela; esate baterako, paragrafotan idaztean edo izenburua jartzean. Oso gutxitan erabili zuten estrategia bat hizkuntza batean, eta ez bestean.

Emaitza horien arabera, etxean euskara erabiltzen duten ikasleek nota hobeak izan dituzte euskarazko zein gaztelaniako testuetan. Eta hizkuntza batean erabiltzen dituzten estrategiak beste hizkuntzetara ere transferitzen dira.

EKARPENAK

EH BILDU-REN HEZKUNTZA KONFERENTZIA

Europako hezkuntza-sistemetik ikasten

Hezkuntza herri baten eraikuntzan oinarrizko zutabea omen da. Nolako hezkuntza, halako herria; nolako hezkuntza, halako jendartea. Hezkuntza, beraz, herri eta herritar kultu eta ikasiak hezteko tresna nagusia omen da. Esan zuen Nelson Mandela berak: “Hezkuntza jendarte eraldaketarako tresnarik eraginkorrena da.” Malcon X-k ere egin zion erreferentzia hezkuntzari: “Hezkuntza etorkizunerako tresna da.” Eta baita Maria Montessorik ere: “Hezkuntzaren lehenengo zeregina bizitza as-tintzea da, baina libre utziz, garatu dadin.”



Ikoitz Arrese

EH Bildu-ren
Hezkuntza
idazkaria

Ez da nire kontua soilik, beraz, hezkuntzak Euskal Herriaren eraikuntzan zein jendarte eraldaketan izan dezakeen garrantzia ikaragarri handia dela pentsatzea. Esaera horiek buruan, hainbat gertakari suertatu ziren Euskal Herrian, hezkuntzaren arloan, iragan ikasturtean. Ipar Euskal Herriari dagokionez, lehenengoz, munduko mapan Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereak toki propioa lortu zuten. Honek, gainera, hainbat eskumen ekarri zituen Euskal Hirigune Elkar-goaren sorrerarekin, tartean, Euskararena. Beraz, aukera leiho bat irekia dugu euskal hezkuntzak aurrera egin dezan eta are eta gehiago zabaldu dadin. Bernat Etxepare lizeoaren obrak bukatzeaz zeuden garai hartan ere.

Nafarroara salto eginda, aipagarrien suerta zekigukeen afera lurralde osoan euskaraz ikasteko eskubidearen bermea izan zen. Alegia, sare publikoko ikastetxeetan D eremuan ikasteko aukera errearen egikaritzea. Motel doan zabalpena bada ere, Nafarroako “aldaketarako gobernuak” urratsak ematen jarraitu behar du, ausardiaz. Nafarroa aitzindari izan behar da bestelako hezkuntza-eredu euskaldun eleaniztun baten



aldeko jardunean.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokionez, berriz, Nafarroan bezala, LOMCeren aplikazioaren enegarren ikasturtean sartuak geunden, kasu honetan Heziberri 2020ren bitartez. Ehunka familiak, ikaslek zein herritarrek tinko erakutsi zuten beste behin ere lege inposatu horrek ezarri nahi dituen errealitatei planto egitea posible dela. Gainera, Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak Hezkuntza Itun baterako urratsen bat emango zuela iragarri zuen. Tarte horretan, gehien- go sindikalak hainbat mobilizazio eta greba deituak zituen Jaurlaritzaren murrizketa politiken kontra.

Testuinguru horretan, eguneroko jardunetik begirada altxatu eta herri honentzat eskaintza erreal baten beharra genuela ondorioztatu genuen EH BILDUKo kideok. Hori dela eta gure borondaterik zintzoena agertu genuen herri gisako Hezkuntza Akordio tinko, parte-hartzaile eta burujabea erdiesteko.

Hainbat eta hainbat ekarpen egin genizkien herritarrei, hezkuntza eragileei, erakundeei eta alderdi politikoei Maddalen Iriarte eta Rebeka Uberaren laguntzaz aurkeztutako proposamen publikoan (www.labur.

[www.labur.">eus/5z069](http://www.labur.)). Denek, jendarte desorekak gainditu eta atzean ikaslerik utziko ez duen Euskal Herrian eraiki nahi dugun hezkuntza-sistema burujabearen bidean urratsak egiteko.

Baina, zer-nolako hezkuntza-sistema da irudikatzen dugun hori? Asko hitz egiten dugu bestelako hezkuntza eredu batez, baina, zein da hori? Espainiar zein Frantziar Estatuek urte luzez inposatu digutenaren eredu iguala da? Zein da ikaslearen benetako papera hezkuntza ibilbidean? Zein funtzio dute irakasleek? Eta familiek? Zein lan-baldintza izan behar dute langileek? Zer ulertzen dugu ikastetxeen autonomiaz? Finantziarioa ikastetxeek jaso behar dute, ala ikasleek? Nolakoa da sistema publikoa? Zer-nolako harremana dute ikastetxeek eta auzo zein herriek? Nolako egitura izan behar du gure sistemak?

Egia esan, galdera lar gure buruetan eta erantzun zehatz gutxi. Hala ere, hezkuntza-sistema burujabeaz etengabe ari bagara, galdera horiek askatu beharrean gaude. Eta gauzak horrela, bilera eta bilera artean munduan zehar dauden hezkuntza eredu eraldatzaileak ezagutzeko ideia bururatu zitzaigun.

“Zer nolako hezkuntza-sistema da irudikatzen dugun hori? Asko hitz egiten dugu bestelako hezkuntza eredu batez, baina, zein da hori? Espainiar zein Frantziar Estatuek urte luzez inposatu digutenaren eredu iguala da? Zein da ikaslearen benetako papera hezkuntza ibilbidean? Zein funtzio dute irakasleek? Eta familiek?”

“Europa iparraldeko herrialde horietan ere badituzte askatu gabeko korapiloak. Nazioartean hezkuntzagatik ezagunak diren herrialde horietan ere pairatzen dituzte murrizketak, irakasleen lan baldintza kasu batzuetan ez dira egokienak...”



Horri tiraka, lehenengo urrats gisa, ipar Europako sistema batzuk erakusteko aukera mahai gaineratu genuen eta iragan irailaren 22an egin genuen Nazioarteko Hezkuntza Konferentzia izan zen horren emaitza. Bertan Finlandia, Herbehereak, Suedia, Danimarka eta Gales-eko ereduetatik ikasteko aukera izan genuen.

Bi zati izan zituen konferentzia: goizekoa eta arratsaldekoa. Egia esan, harro esan dezaket arrakasta itzela izan zutela biek, bai kuantitatiboki zein kualitatiboki utzitako ondorioengatik.

Goizean Euskal Herriko erakunde, elkarte, hezkuntza eragile eta norbanakoekin egin genuen lan-saioa. Bertan, beste askoren artean, Udaltzuzteak, UEU, UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deusto, Euskadiko Eskola Kontseilua, ELA, LAB, Steilas, CCOO, Erkide, Ikastolak, Sortzen, Ehige, Heize, Gure Platera Gure Aukera, Kontseilua, Hik Hasi eta EH BILDUKo kideok izan ginen nazioarteko gonbidatuekin.

Solasaldi benetan interesgarria izan genuen, izan ere, aukera polita izan zen euskal hezkuntzaren argazkia nazioarteko lagunei erakusteko eta baita guk euren herrialdeetako zertzelada

batzuk jaso genitzan ere. Egia aitortzeko, ez dakit etorritako gonbidatuek aurkeztu genizkien 25 eragileen aurkezpenaren ondoren gure errealtatearen argipenak jaso zituzten edo nahasmen handiagoa sortu zitzairen... baina tira, gustura egon zirela ezin dezaket ukatu.

Eurek lehenengo pertsonan kontatutakoari dagokionez, aipu bat egitea inportantea deritzot: etorri ziren ipar Europako herrialdeetako ordezkariak ez dira Gobernuak. Hau da, GUE/NGL eta The Greens/EFA Europako Legebiltzar Taldeetako alderdietako kideak dira, EH BILDUKen bide-lagunak. 5 kasuetan, gainera, oposizioan dauden alderdiak dira. Beraz, bereziki interesgarria izan zen euren kontakizuna, izan ere, euren hezkuntza-sistemei kritika eraikitzailea egiten diete.

Bilera horren zerbait deigarria azpimarratu beharko banu, aipatu ditudan hezkuntza-sistema horiekiko dugun begirune idilikoa litzateke. Idilikoa izanik ere, badituzte askatuta ez dituzten korapiloak, dena hain polita ez denaren seinale. Nazioartean hezkuntzagatik ezagunak diren herrialde horietan ere pairatzen dituzte murrizketak, irakasleen lan-

baldintzak kasu batzuetan ez dira egokienak, migrazioa arazo gisa kokatzen dituzten korrante xenofoboak mehatxua dute...

Kritiketako bat PISA azterketari dagokionez duten jarrera izan zen. Hau da, PISAn horren emaitza onak ateratzen dituzten herrialdeak izanik, nik behintzat, pentsatzen nuen ebaluazio-eredu horrekin konforme edota eroso egongo zirela. Baina non nire sorpresa, kontrakoa dela euren iritzia. Danimarkako ordezkariak argi eta garbi esan zuten: “PISAK ez digu inongo ekarpenik egiten. Ni behintzat ranking horretatik irten egingo nintzateke.” Zer pentsa eman zidan baieztapen hain tinko horrek.

Konferentziaren arratsaldeko saioa, berriz, herritarrei irekia izan zen. Ikaragarria izan zen jendearen erantzuna. Iratzar Aretoa lepo beteta zegoen. 285 pertsona bildu ginen bertan eta arratsalde osoan zehar luzatu zen mahai-inguruaz gozatu genuen. Horrenbeste hilabeteetako lanari erantzun zioten eskola komunitateko kideek eta pozgarria izan zen, gainera, ostiral arratsaldea izanik ere gerturatu zen irakasle mordoa ikusi izana.

Gehiago ez naiz luzatuko, ez naiz



ni nor eta etorri zitzaizkigun lagunen hitzartzeak laburbiltzeko. Hala ere, konferentzian parte hartu zuten Finlandiako Mikko Niemela, Herbereretako Peter Kwint, Suediako Daniel Riazat, Danimarkako Mai Villadsen eta Galeseko Leanne Wood-ek aurkeztutako guztiaren berri izan nahi duen orok aukera du ondorengo loturaren bitartez ikusteko: www.labor.us/hwng1.

Azkenik, EH BILDUn egindako I.go Kongresu Eratzailean adostutakoari jarraiki hezkuntzaz egiten dugun hausnarketa utzi nahi dut.

“Euskal Herriak ez du hezkuntza-sistema propiorik. Frantziar eta Espainiar estatuen legeak, dekretuak eta markoak inposatu zaizkigu. Hori dela eta, ez dugu gure hezkuntza-sistema propioa kudeatzeko eta arautzeko burujabetza osorik. Hala ere, urteetan zehar, herri ekimenez egindako esfortzu nekaezinek berrezko hezkuntza eredu bat eraikitzea posible egin dute.

Euskal herritar guztiek dute kalitatezko hezkuntza bat eta beren nahi eta gaitasunen araberako etengabeko prestakuntza bat jasotzeko eskubidea. Horretarako, hezkuntza-eredu propio bat defendatu behar dugu.

Eredu horrek, alde batetik, euskal curriculumak izango du ardatz, eta, bestetik, 0 urtetik 18ra bitarteko hezkuntza, lanbide-heziketa eta unibertsitate-sistema bilduko dituen eredu publiko, herriko, paritario eta parte-hartzean oinarritutako bat.

Hezkuntza-sistema publiko baten aldeko apustua egiten dugunean, botere publikoek jendarte osoari dagozkion hezkuntza-eskubideak bermatzeko betebeharra dutela hartzen dugu kontuan. Euskal hezkuntza publikoa herri-ikuspegi publikoan kokatzen dugu. Euskal sistema publikoa, gure ikuspuntutik, botere publikoak eta hezkuntza-komunitateak diseinatzen, antolatzen, planifikatzen, kudeatzen eta garatzen dutena da”.

Beraz, hau esanda, Nazioarteko Hezkuntza Konferentzia bukatzean esan nuen berdinarekin amaituko dut nire ekarpen xume hau: ”Maddalen Iriartek Rosa Parks gogoan esandakoari aipu eginez, zenbat eta gehiago obeditu, orduan eta txarrago tratatu gintuzten. Inposatzen diguten eredu desobeditu eta Euskal Herri-rako hezkuntza-sistema propioaren alde egin dezagun orduan! Eskerrik asko denei!”

“Hezkuntza-sistema publiko baten aldeko apustua egiten dugunean, botere publikoek jendarte osoari dagozkion hezkuntza-eskubideak bermatzeko betebeharra dutela hartzen dugu kontuan. Euskal hezkuntza publikoa herri ikuspegi publikoan kokatzen dugu”

GALDEIDAZU

KIROLA ETA GENERO BERDINTASUNA UZTARTZEKO MODURIK BA OTE DA?

A lde batetik, badakigu kirol-sistema modernoa emakumeak baztertu dituzten eremuen artean adibide ona izan dela eta dela; badakigu, baita ere, kirola askatasuna eta plazera eskaintzen dituen jarduera dela (sufritu egiten da, baina gozatu ere bai –endorfinak–); izan ere, gaztelaniazko “deporte” hitza (Testu hau gaztelaniatik itzuli da. Horregatik dator erreferentzia hau **sport** hitzetik dator, ingelesezko *disport* aditzetik (dibertitu, entretenitu), eta frantsesezko *desporter* aditzean du jatorria ingelesezkoak, eta azkenik, frantsesezkoa latinezko *deportare* aditzetik dator (*dibertitu* esan nahi du, latin arruntean). Nire iritziz, bi elementu horiek –emakumeak baztertzeko dituzten erakundeak, batetik, eta askatasuna, aisialdia eta dibertsioa mugatzea, bestetik– oinarritzekoak dira kirola ikuspegi kritiko feministatik aztertzeko.

Laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarrekoaren hasieran, diziplinarteko ikerketa-proiektu batean hartu nuen parte, eta “emakumea eta boterea” gaia aztertu genuen. Garai hartan, surfak eta skateak indar handia hartu zuten, eta kirol horietan mutilak soilik aritzen zirela ohartu nintzen; kirol berriak izanik, neskek zein mutilek bereganatuko zituztela uste nuen. Gaur egungo ikuspegitik



CARMEN DIEZ MINTEGI
Antropologoa



ikusita, nire iritziz, hori pentsatzen genuen uste genuelako feminismoaren indarrak jada mundua aldatu zuela. Ameslaria ni.

Beraz, kirol-jardueretara zuzendu nuen nire arreta. Garai hartan (1988), Marina Subiratsen eta Cristina Brulleten liburua argitaratu zen: **Rosa y azul: La transmisión de los géneros en la escuela mixta**; liburu horretan, besteak beste, azpimarratzen zen eskola mistoetako jolastokiak futboleant aritzen ziren mutikoei hartzen zituztela, eta neskek bazterretan gelditzen zirela, kromoetara jolasten edo toki asko eskatzen ez zuten zereginetan. Egoera hori ez da asko aldatu ikastetxe pribatu edo publiko askotan, gaur egun neska askok futboleant jokatzen duten arren.

Nire bi semeak nerabeak ziren orduan, eta futboleant jokatzen zuten, baina ez nintzen mundu horretaz gehiegi jabetu nire azterketaren xede bihurtu nuen arte. Gipuzkoako futbol-jardueran oinarritu nintzen, eta horren egitura, parte-hartzea eta antolamendua aztertu nituen (“Deporte y construcción de las relaciones de género” artikulua sarean eskura daiteke). Deigarria gertatu zitzaidan lehenengo gauza hauxe izan zen: mutilek federazioaren hainbat kategoriatan jokatzei aukera zuten, adinaren arabera (benjaminak, kimuak, hau-

rak, kadeteak eta gazteak), 8 urtetik 18 urtera arte; nesken kasuan, aldiz, kategoria bakarra zegoen, 13 urte beteta zituztenentzat: “emakumezkoen futbol-taldea”. Laurogeiko urteen hasieran sortu zen kategoria hori, eta talde berean eta elkarren aurka jokatzeko zuten 13 urtetik 28 urtera bitartean zituzten neskek. Aurrerago, benjaminen, kimuen eta haurren kategoriak agertu ziren nesken kasuan ere, eta talde mistoetan ere joka zezaketen, baina haurren kategoriatik behera soilik (gaur egun ere horrela da hori, eta Lleidako nesken taldea da horren adibide: mutilen aurka jokatu du eta lehena gelditu da).

Gipuzkoako futbol-taldeek azterketarekin jarraituz, deigarria gertatu zitzaidan beste gauza bat zera izan zen: gizonzkoen futbol-taldeek egitura horretan, mutikoak 8 urterekin sartzen dira, eta 18 urtera arte bertan jarraitzen dute askok, kategoria guztietatik igarota, lehiatuta eta gorenera iristeko helburuarekin, hau da, lehenengo mailako taldera, Realera (edo Eibarre-ra orain, edo Athleticera edo lehen edo bigarren mailako beste talde batzuetara), oso gutxi lortzen duten arren.

Egitura horrek antz handia zuen gizarte patriarkal tradizionalak egiturekin; gizarte horietan, 8-9 urteko haurrak etxeko bizimodutik eta emakumeengandik aldentzen dituzte “gizonen etxera” joateko, “gerlari” eta “gizon” izateko ahaleziak eta ezagupenak barneratuko dituzten espazio fisiko eta sinbolikora, eta mundu mistora itzultzeko prest izango dira gero. Gizarte horietan, neskak oso azkar iristen dira heldutasunera, ez dira etxeko bizimodutik bereizten, eta ia zuzenean igarotzen dira ezkonbitzara.

Non du jatorria gaur egungo kirol-ereduak?

XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren hasieran, aldaketa handiak gertatu ziren gizartean. Alde batetik, kapitalismoa sistema ekonomiko gisa eta industrializazioa lan-eredu gisa behin betiko ezarri ziren, eta, horiekin batera, familia-antolakuntzako eredu “ideal” burgesa ere ezarri zen, zereginen banaketa ere barnean hartzen zuena: gizonak soldata ekartzen zuen

eta emakumea etxeaz arduratzen zen.

Eredu horretan, haurren heziketa emakumeen esku gelditu zen ia erabat, eta, mutikoak biguntzeko eta “emakumetzeko” beldurraren ondorioz, indarkeria handiko kirolak agertu ziren, testuinguru iparamerikarrean batez ere: boxeoa eta futbol amerikarra; gizontasun handiko maskulinitate-eredu hegemonikoa goratu zuten kirol horiek. Bestalde, testuinguru horretan bertan, *Boy Scouts* izeneko erakundea sortu zen (1910. urtean); mutikoei “benetako maskulinitatea” barneratzea zen erakunde horren xedea, eta beste gizon batzuek irakatsiko zieten hori. Horrez gain, gorputz-hezkuntza eskola-jarduere artean ezarrita zegoen jada, eta, herrialdeen arabera, helburu desberdinak zituen, herritar-mota jakin batzuk eraikitze asmoz. Esate baterako, Frantzia, eskola/nazioa izan zen lotura, herritarren ikuskera militarizatua zuten; Ingalaterran, berriaz, etorkizunean inperioa administratuko zuten gazteak prestatu nahi zituzten.

Alderdi horiekin guztiekin batera, bada beste elementu garrantzitsu bat: aisialdia. Lan-egitura berriak aisialdirako eta kirolerako beta ematen zuen, eta egitura erritualizatu asko aisialdiaren erreferente garrantzitsu bihurtu ziren: klubak, federazioak, txapelketak (gaur egun egitura horri eusten zaio).

Euskal Herrian, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran eratu zen kirol-sistema hori; futbola Ingalaterratik Bizkaira iritsi zen, XX. mendearen hasieran, eta onespen zabalak izan zuen; Real Sociedad taldea 1909. urtean eratu zen ofizialki, baina lehenago ere baziren futboleak aritzen ziren klubak. Donostian, Kontxako hondartzako haur eta gazteen txapelketak 1911. urtean hasi ziren, eta gaur egun ere egiten dira; XX. mende osoan antolatuta dira haurrei eta gazteei zuzendutako txapelketak. Futbolaz ari naiz, une hartan horrek erakarri zuelako nire arreta (garrantzi handiko jarduera zelako eta komunikabideetan oihartzun handia zuelako, artean –laurogeiko hamarkadan– gaur egun duen garrantzi global eta ekonomikora iristen ez bazen ere), baina beste kirol batzuetan ere gauza bera gertatzen da.

XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren hasieran, haurren heziketa emakumeen esku gelditu zen ia erabat, eta, mutikoak biguntzeko eta “emakumetzeko” beldurraren ondorioz, indarkeria handiko kirolak agertu ziren, testuinguru iparamerikarrean batez ere: boxeoa eta futbol amerikarra; gizontasun handiko maskulinitate-eredu hegemonikoa goratu zuten kirol horiek.

Kirola maskulinitate hegemonikoa islatzeko eremuetako bat dela jabetuta (hauekin batera: lan mundua, armada, zientzia, eliza, esparru judiziala, etab.), herri edo hiri jakin batean zer kirol-jarduera nabarmentzen den azter dezakegu (arrauna, futbola, pilota...). Eredu horiek guztiak “gizonen etxeak” dira nolabait, eta ospe handia ematen diete parte-hartzaileei; emakumeak eremu horietatik at gelditu dira, ez dagokie haiei toki hori.

GALDEIDAZU: KIROLA ETA GENERO BERDINTASUNA

Oro har, kirola maskulinitate hegemonikoa islatzeko eremuetako bat dela jabetuta (hauekin batera: lan-mundua, armada, zientzia, eliza, esparru judiciala, etab.), herri edo hiri jakin batean zer kirol-jarduera nabarmentzen den azter dezakegu (arraunketa kostaldeko herrietan, eskubaloia Eibarren, herri-kirolak, etab.).

Eremu horiek guztiak “gizonen etxeak” dira nolabait, eta ospe handia ematen diete parte-hartzaileei; emakumeak eremu horietatik at gelditu dira, ez dagokie haiei toki hori.

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, hainbat elementu azpimarratu eta sakondu behar dira: 1) laurogeiko hamarkadan, begirada feministaren eta genero-kontzeptuaren eztabaida zabalduko da; teoria feministak aldatu egingo du kirolaren azterketa egiteko modua; 2) kirol modernoa erakunde homosoziala da, egitura-ardatz gisa sexu biologikoa hartzen duen maskulinitate-eredu bat errepikatzen duena; 3) kirol-sistema modernoa eratu zenetik, emakumeek kirola egiteko debekua jasan zuten.

Historia pixka bat

Gogoan izan behar da mendebaldeko gaur egungo gizarteak Europako iraultzetan duela jatorria; iraultza horiek sistema feudalak eta estamentalak atzean utzi zituzten, eta “legezkotasuna”, “senidetasuna” eta “berdintasuna” izango ziren aurrerantzean gizartearen euskarriak.

- Arazo bat sortu zen, hala ere: berdintasun hori ez zen gizarte osora hedatu, familia-talde bat mantentzeko gai izango ziren gizon zuriengana soilik.
- Beraz, patriarkatu-modu berri bat ezarri zen: sistema horrek ez zien herritar-eskubidea aitortzen emakumei, eta arlo publikoetan parte hartzea ukatzen zien (bozkatzeko eskubidea, lan egiteko eskubidea edo hezkuntzarako eskubidea). Eskubide horiek lortzea izan zen XIX. mendeko eta XX. mendearen zati bateko borroka feministaren xedea.
- Hala, emakumeen kasuan, sentiberatasunarekin, ulermenarekin, pasibotasunarekin, otzantasunarekin, onespunarekin, mendekota-



sunarekin, oldarkortasun falta-rekin eta antzeko ezaugarriekin lotutako feminitatea eratu zen; aitzitik, gizonen kasuan, maskulinitatea indarrarekin, oldarkortasunarekin, lanarekin, arrakastarekin eta ekimenarekin lotu zen, eta gaur egun ere horrela da oraindik.

XVIII. mendetik aurrera, hainbat erakunde eta diskurtso abiarazi ziren gizonak eta emakumeak bereizten zituena hezkuntza-proiektua aurrera eramateko: hezkuntzak, lan-esparruak, zientziak, medikuntzak, politikak, eta abarrek emakumeen presentzia eragotzi edo baztertu zuten; kirola ere eremu horien artean dago, eta gizonak nagusi diren gizarteari eusteko orduan garrantzi handia izan du eremu horrek ere. Zenbait egilek adierazitakoa ekarriko dugu gogora: kirol gehienek, taldean nahiz banaka egiten direnek, gaur egungo munduaren laburpen eta ikuspegi koherentea ematen dute: talde-lanaren balioa, elkartasuna, lanaren zatiketa, plangintza kolektiboa eta, gainera, gizarte industrial eta kapitalista oinarri hartuta, pertsonen merituen, emaitzen eta parekoen arteko lehiaketaren goraiapamena.

1980. urtean, biltzar bat antolatu zen Londresen, “Sport, Culture and Ideology” izenburupean; biltzar hartako edukia Jennifer Hargreavesek editatutako ale batean jasota dago (lantzen ari garen gaiari buruzko lan

garrantzitsuak ekoitzi ditu aditu horrek). Sarreran, egile horrek azpimarratzen du gero eta interes handiagoa dagoela kirola gertakari kulturaltzat hartzeko. Ale horretan, bi ekarpenek berariaz aztertzen dute emakumeek kirolarekin duten harremana; horietako batek aisialdiaren ikuspegitik aztertzen du harreman hori (Griffin, Hobson, MacIntosh & McCabe, 1982); egile horiek emakumeek eta gizonen aisialdirako eskubidea eratze-ko duten modu desberdina aztertzen dute, eta emakumeek kirolean parte hartzearekin edo ez parte hartzearekin erlazionatzen dute zuzenean. Gizonen aisialdiak emakumei lana ematen diela ere planteatu zuten, emakumeek eraikitzen baitute gizonak erlaxatzeko espazio hori. Aisialdiaren gaiak ez du egunerokotasuna galdu gure testuinguruan; izan ere, urtez urte, hainbat azterketak erakusten du emakumeek aisialdi-defizita dutela, eurentzat denbora gutxiago dutela, bereziki seme-alabak edo euren kargura mendeko pertsonak dituztenek.

Bigarren artikulua, Paul Willis-enak, kirolaren ideologiaren gaia lantzen du; ideologia hori ildo “naturalista” oinarrituta egongo litzateke, eta, kirola gizartetik bereizitako eremu gisa ikusita, sexuen arteko desberdintasunaren ustea legitimatuko luke. Gai sakon asko planteatzen ditu artikulua, eta ezin ditugu guztiak hemen aztertu, baina badira zenbait

alderdi, nire ustez, gaur egun oraindik kirolaren esanahiaren eta emakumeek jasaten duten desorekaren atzean daudenak. Willisek azpimarratzen du bereizketa biologikoetan oinarritutako alderdiak, hala nola azalaren kolorean edo sexuan oinarritutakoak, kontuan hartzen dituzten ideologiak direla gizartean gehien errotzen direnak.

Hala, Willisen arabera, kirol modernoaren antolaketa oinarria sexu-desberdintasuna izan zen. Alde edo desberdintasun horretan oinarrituta eraiki zen gizonezkoen nagusitasuna; alde batetik, lorpenen konparazioan ardaztutako ikuspegi positibista eta naturalizatzailetik. Aldi berean, kirola egiteko joera erakusten zuten emakumeen inguruan, “benetako emakumeak” ez zirelako susmoan oinarritutako ideologia bat garatzen hasi zen.

Ideologia horrek zalantzan jartzen ditu zenbait jarduera emakume batek egiten baditu, edo gizonezko batek egiten baditu ere bai, eta, Willisen arabera, gure errealtatean ageri da ideologia hori esaten denean zenbait kirolek emakumeak “maskulinizatu” egiten dituztela, edo neskatuei esaten dietenean giharrak mutikoen moduan garatuko zaizkiela, edo neska txiki bati “mari-mutil” esaten zaionean jarduera jakin batzuk gustuko dituelako. Futbola atsegin ez duten eta beste jarduera batzuk nahiago dituzten mutikoen kasua ere antzekoa da, horregatik “mari-neska” edo, zuzenean, “marikoi” esaten dietenean, adibidez.

Kontu bitxia da honakoa, hala ere; izan ere, gaur egun eremu askotan ez genukeen sexuaren arabera bereizketarik onartuko (hezkuntza, lana, politika, zientzia), baina kirolean bereizketa horri eusten zaio; haur txikien kasuan kirol mistoa bultzatzen den arren, ustezko “sen onak”, ikusten dugunean eta konparazioaren eta nagusitasunaren ideologian oinarritzen denak, bereizketa hori zuritu egiten du, edozein adinetan.

Kirola sexuaren arabera antolatzeari buruzko alderdi hori tabua da ia, oso zaila da hori aldatzea, eta ondorioak ditu kirolaz haraindi. Janusz Korwin-Mikke eurodiputatu poloniarra marxista ausarta da, baina emakumeok gizonak baino gutxiago irabazteko emandako agudua (aurten, 2017an)

emakumeek atletismoan edo xakean egiten dituzten lorpen txikiagoetan oinarritu zuen, eta “txikiagoak, ahulagoak eta tentelagoak” garela esanez arrazoitu zuen.

Begiratu bat generoaren ikuspegitik

Emakumea zer den edo gizona zer den, feminitatea eta maskulinitatea zer diren dioten kategoria finkoen ikuspegiaren aurrean, botere-sistema gisa ulertzen dugu generoa, gizakion arteko harremanak ikuspegi dinamiko batetik eta toki eta denbora zehatzetatik aztertzen dituen; gizon izatea edo emakume izatea gizarte-kategoria aldakorak dira, eta ez dira ulertzen elkarrekiko harremanean ez bada; feminitatea eta maskulinitatea genero-proiektuak dira, prozesuen bitartez eraikitzen dira, eta ez dira ulertzen bien arteko harremanaren bidez ez bada (femeninoa izatea maskulinoa ez izatea da, eta alderantziz).

Denboran aurrera eginez, estrukturalismoaren ondorengo teoriak diote generoa ez dela gu garen hori, baizik eta egiten dugun hori; jakina, kirola agertoki egokia da genero “egite” hori behatzeko, eta mugak eta sexu-kategoriak hauts ditzake, edo emakumeen gorputzak sexu-objektu bihurtzen dituen hiperfeminitatea sor dezake.

Desberdintasunak azpimarratzeak, boterearen ikuspegi foucaultarrak – boterea goitik behera gauzatzeaz gain, botere hori plurala da, eta toki askotan gauzatzen da, hala nola gorputzean eta diskurtsoetan– edo generoa performatibotasun gisa ikusteak ezegonkortu egin ditu kirolari buruzko azterlanetan sexuaren, generoaren eta sexualitatearen arteko erlazioen nozio tradizionalak. *Queer* teoria deritzona, fokua generoan eta sexualitatean jartzen duena, sexu-nortasunaren eta heteronormatibotasunaren diskurtsoaren dekonstrukzioa hurbiltzen da.

Testuinguru berri horretatik, *feminismo-ondoko* deritzonak, desberdintasunetan oinarrituz eta norbanakoen kontakizunen eta esperientzien bitartez, mahai gainean jarri du generoaren nahiz sexualitatearen adierazpide-aniztasuna. Ekarpen horien aberastasunari esker modu esanguratsuan aldatu da generoaren eta kirolaren arteko erlazioak ulertzeko modua; hala ere,

joera hori kritikatu egin da, erlatibismoa sustatzen duelako eta generoari dagokionez emakumeen esperientzia partekatua galtzeagatik.

Gaur egungo munduan, desoreka materialak eta sozialak areagotu egin dira azken urteetan, eta interresgarriak dira zenbait feministaren proposamenak, bereziki **bell hooks**en lanak, “hirugarren bolada feminista” deritzonaren barnean. “Eremu neutral” deritzotenetik planteatu dute proposamen hori, proposamen berriak kontuan hartuko dituen eremutik, hain zuzen: proposamen horiek desirak, plazerak, ahalduntzea eta aktibismo pertsonala azpimarratzen dituzte, betiere, bigarren bolada feministaren proposamenak eta aldarrikapenak eta boterearen egiturei egindako kritikak baztertu gabe. Pertsonalki, uste dut proposamen egokia dela kirola tokiko ikuspegitik lantzeko, une honetan planteatzen diren eta etorkizunean planteatuko diren aniztasunak, desberdintasunak, desorekak eta erronkak kontuan hartuz.

Tokiko ikuspegia: Gipuzkoako adibidea

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola-kirola hasi zela 25 urte igaro direla ospatzeko kaleratutako lan baten arabera, 1990. urtean, eskola-kirola abian jarri zenean, ikasleen % 30 inguruk soilik hartzen zuten parte programa horretan, eta 2016. urtean, berriz, % 80k hartzen du parte. Txosten horretan bertan adierazten da genero-arrakala murriztu egin dela: 1990ean, eskola-kirolean parte hartzen zuten % 30 horretatik soilik % 20 ziren neskek, eta 2016an, berriz, % 51 mutilak dira, eta % 42, neskek.

Txosten horrek kirol tradizionalako parte-hartzeari buruzko datu zehatzak ematen dizkigu, benjaminak, kimuak eta haurrak kategorietan. Aipatzen diren lau kirolean (areto-futbola, eskubaloia, saskibaloia eta futbola), nesken parte-hartzea txikiagoa da, baina haurren kategorian (12, 13 eta 14 urte) gertatzen den beherakada da deigarriena: mutikoen parte-hartzea % 81,82koa da, eta neskena, berriz, % 55,07koa.

12 urtetik aurrerako neskek kirola uzteko arrazoiei dagokionez, 2000. urtean ikerketa bat koordinatu nuen

Gure testuinguruan, lehiaketazko kirolak (futbolak batez ere, bai eta beste kirol autoktonoago batzuek ere: pilota, arraunketa, etab.) toki garrantzitsua hartzen du komunikabideetan; utopia dirudi hori aldatu ahal izango dugula pentsatzea, baina kirol praktikaren balio positiboak sustatu behar ditugu gure inguru hurbilenean. Horretarako, gizartean oso errotuta dauden hainbat alderdi zalantzan jarri beharko dira (sexu-desberdintasuna edo XIX. mendean sortutako kirol-egitura bera, maila guztietan indarrean jarraitzen duena, gure haurrak kirola egiten hasteari dagokion ikuspegia ere bai).

Foru Aldundiak eskatuta, 12 urtetik 18 urtera arteko neskek kirola uzteko zituzten arrazoiak aztertzeke. Gipuzkoa mailan egin zen, teknika kualitatiboekin, eta neska gazteak nahiz ikastetxeak, kirol-taldeak eta gurasoak hartu ziren kontuan.

Modu laburrean, esan dezakegu arrazoiak banakakoak nahiz sozialak eta egiturazkoak zirela.

Neskek denbora faltagatik uzten zuten kirola askotan, baina denbora falta hori izan aurretik uzten zuten, hau da, DBH hasieran (12 urte) edo nahitaezko etapa horren lehenengo urteetan.

Gizarte-inguruak (familia, eskola) ez zion garrantzirik ematen neskek kirola uzteari, kirolari ona ez baldin bazen behintzat. Kirolari ona ez bada, gogo onez onartzen dute neskatoak kirola uztea, eta denbora hori probetxuzko

beste gauza batzuk egiteko erabilteko esaten diote, hala nola ingelesa ikasteko edo beste jarduera batzuk egiteko; beraz, jokatzeari eta lehiatzeari uztera bultzatzen dituzte neskak. Ez da halakorik gertatzen mutikoen kasuan.

Bestalde, duela 10-15 urte, kirol-taldeetako egiturek ez zuten ahalmenik nesken kopuru handia hartzeko, baliabide ekonomikorik ez zutelako.

Kirol askotan, gainera, neskek erreferentzia-eredurik ez zutela kontuan izatea garrantzitsua zela jabetu ginen; horrez gain, kirol-taldeetako, federazioetako eta abarretako egitura oso maskulinoa zen, eta garrantzi gutxi ematen zioten nesken parte-hartzea bultzatzeari.

Orditik gauza batzuk aldatu direla uste dut, baina beste asko ez. Gaur egun, eredu gehiago daude; futbolero eta eskubaloiko nesken taldeak estatuko txapelketetan aritzen dira, eta emaitza onak dituzte, Real Sociedad eta Bera Bera taldeek, adibidez, eta bananako beste kirol batzuk ere nabarmendu dira: Maialen Chourrautek urrezko domina lortu zuen ur bizietako piraguismoan, eta ama izan ondoren, gainera; beraz, beste mito zahar bat hautsi zuen.

Zailagoa da jakitea ea nesken jokabideak nahiz gizarte-inguruak (familia, eskolak, neskak...) jokabideak aldatu diren, edo nola eta non aldatu diren; izan ere, ikastetxe bakoitza, udalerrri bakoitza eta talde bakoitza eremu berezia da, eta generoaren eta genero-ideologiaren erregimenak askotarikoak izan daitezke. Alderdi horiek guztiak sakontzeko eta ezagutzeko lan handia egin beharko litzateke.

Bestalde, aztertzen ari garen gai honetan, garrantzitsua da mahai ganean jartzea zer lortu nahi dugun “genero-berdintasunari” buruz hitz egiten dugunean; hau da, parte-hartzearekin lotutako ehunekoetan genero-arrakala murriztea nahikoa den, edo kirola osotasunean kontuan hartzen den eta kirolaren egitura androzentrikoa zalantzan jartzen den, neskei zein mutilei irekitako kirol-praktika osasungarri eta dibertigarriantz abiatzeko eta gizartean aldaketa orokorra bultzatzeko.

Europako iparraldeko herrialdeetan

eta, bereziki, Suedian duela gutxi egindako azterlan batek honako izenburu hau du: “Can Gender Equality become an Encumbrance?”, hau da, “Genero-berdintasuna zama bat izan daiteke?”. Suedian, parte-hartzeari buruzko ehunekoek 60-40 maila lortu dute, eta berdintasunaz hitz egin daiteke, beraz; hala ere, batetik, neskek eta mutilek kirol jakin batzuk hautatzen dituzte oraindik ere, eta, bestetik, egileak dio parte-hartzean gertatu den “berdinketa” horrek ez duela aldaketa ekarri botere-harreman generikoean, eta neskek zein mutilek interes desberdinak dituztela esaten dela oraindik ere (mutilek lehiaketak eta neskek gizarte-harremanak); gainera, azken alderdi hori ez da genero-arazo gisa landu.


Egileak, beste aditu batzuek bezalaxe, sexu-kategoria bera zalantzan jartzeko eta alderdi hori lantzeko beharra planteatzen du, hala, kirol-praktika bidezkoago baterantz abiatzeko.

Gauza jakina da gizarteko estamentu eta eremu guztietan, baita kirolean ere, emakumeen presentzia izateak ez dakarrela beti aldaketa, edo ez direla botere-egiturak eta emakumeen mendekotasuna zalantzan jartzen. Nola-baiteko “normalizazioa” izan daiteke, eta ongi etorria izan dadila, baina pentsamendu feminista eta horren erreminta teorikoak eta praktikoak eremu androzentrikoetan sartu behar dira, horiek aldatu nahi baditugu.

Gure testuinguruan, lehiaketazko kirolak (futbolak batez ere, bai eta beste kirol autoktonoago batzuek ere: pilota, arraunketa, etab.) toki garrantzitsua hartzen du komunikabideetan; utopia dirudi hori aldatu ahal izango dugula pentsatzea, baina kirol-praktikaren balio positiboak sustatu behar ditugu gure inguru hurbilenean. Horretarako, gizartean oso errotuta dauden hainbat alderdi zalantzan jarri beharko dira (sexu-desberdintasuna edo XIX. mendean sortutako kirol-egitura bera, maila guztietan indarrean jarraitzen duena, gure haurrak kirola egiten hasteari dagokion ikuspegia ere bai).

Askatasuna aldarrikatzea litzateke haurrak garenetik agindu kultural sexistetatik eta generoaren diktaduratik aske bizitzeko modu bat.

ARGITALPENAK




MUNDUKO ZOPARIK ONENA

Susanna Isern / Mar Ferrero

TXALAPARTA

Baso ezkuu batean, argia piztuta zeukan etxola txiki batek. Kea ateratzen zen tximiniatik; otordua prestatzen ari zen dortoka. Bat-batean, elur ekaitz batek ustekabean harrapatu zituen hainbat animalia eta dortokaren etxolara joan ziren. Etorri berriek hainbat jaki eramán zituzten zopari botatzeko eta munduko zoparik onena egiteko!




BAT PAT: BIKINGO IPURTERREA

Roberto Pavanella

MEZULARI

Silver familiak oporraldi hotz-hotza egitea erabaki du Runavik izeneko herrian, Faroe uhartean. Han bizi izan zen garai guztietako bikingorik gaiztoena: Harald Kirastuna. Haren mamua maiz agertzen omen da inguru haietan, eta oso umore txarra du! Bat Pat bildumako 9.a da liburu hau. Berezia da: azal gogorra eta orri kopuru bikoitza ditu.




PINTTO ETA ROCKA

Magali Le Huche

TTARTTALO

Pintto rockzale amorratua da, eta, gitarra hartuta, Londresera joan da, rockaren hiriburura. Bere ametsa bete nahi du: disko bat grabatu nahi du! Berak bakarrik grabatuko ote du? Edo laguntzarekin? Irakurtzeko istorio bat da, baina baita entzutekoa ere, hamaisei doinu entzun baitaitezke liburuko ikonoen gainean sakatuta.




ANTZINAKO ZUHAITZA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

KATXIPORRETA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok *Antzinako zuhaitza* disko-liburua plazaratu dute, Joan Mari Irigoien idazlea omentzeko. Haren *Metak eta kometak* liburuko testuak hartu dituzte abestiak egiteko garaian, eta Xabier Zabala arduratu da doinuez, beste askotan bezala. Xabier Amurizak egin ditu testuen errezitalak, eta Jose Luis Zumetak egin ditu ilustrazioak.



OILO TXIKIA

Nuria Figueras i Adell / Teresa Marti

IBAIZABAL

Bazen behin oilo txiki bat. Hain zen txikia, ez baitzuen arrautzarik errutea ere lortzen. Oilategiko gainerako oiloek barre egiten zioten horregatik. Egun batean, arrautza txiki marroi bat errutea lortu zuen. Beste arrautzak ez bezala, txokolatezkoa zen harena, eta asko gustatu zitzaion Martini. Hurrengo egunetan arrautzak erruten jarraitu zuen, geroz eta handiagoak eta goxoagoak.



BEGIRADA

Jean-Paul Sartre / Juanmari Aguirreurreta

JAKIN

XX. mendeko pentsalari garrantzitsuenetako bat da Sartre. Filosofiaren alorrean egindako ekarpenengatik ez ezik, intelektual konprometitu izateagatik ere ezaguna da. Filosofian, fenomenologiatik existentzialismorako urratsa egin zuen *L'Être et le Néant* bere obra klasikoan. Eta, hain zuzen, liburu horren kapitulu bat, "Begirada" izeneko irakur daiteke orain euskaraz.

PROPOSAMENA

INSPIRA proiektua

Nesken artean bokazio teknologikoa sustatu nahian

Nesken artean sentsibilizazioko eta orientazioko ekintzak baliatzen bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko, INSPIRA proiektua jarri dute abian Deustuko Unibertsitateak eta Elhuyar Fundazioak, Innobasqueren lankidetzarekin eta DECYTen laguntzarekin. Ekimena aitzindaria da, ikerketaren, zientziaren eta teknologiaren munduko emakume profesionalak hartzen dutelako parte proiektuan, eta zuzenean ikasleekin elkartzen direlako. Izan ere, taldeko mentoring teknika erabiliko da lehen aldiz Lehen Hezkuntzako nesken artean, STEAM siglaren azpian biltzen diren arloak sustatzeko (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika).



Zientziaren eta teknologiaren arloetako prestakuntza aukatzen duten ikasleen kopurua beherantz doa, urtetik urtera. Neskei dagokienez, are larriagoak dira datuak. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara hasten da nabaritzen arlo zientifiko eta teknologietako zaletasuna gutxituz doala ikasleen artean, eta, bereziki, emakumezkoen artean. Noski, joera horrek eragina du ikasleek Batxilergoan edota unibertsitateko ikasketetan egiten dituzten aukeretan. Adibidez, unibertsitate-sistemako ikasle guztien % 54,3 emakumeak izan arren, titulazio teknikoetan, Ingeniaritzan eta Arkitekturan, esate baterako, % 26,4

besterik ez dira.

Egoera horri buelta eman nahian sortu dute INSPIRA, Deustuko Unibertsitateak gidatuta, nesken artean bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko xedez. Proiektuaren koordinatzaile Mari Luz Guenagak azaldu duenez, lehenik eta behin, zientziaren eta teknologiaren arloetako jarduerak ezagutaraztea da helburua: “Zientziaren eta teknologiaren eremuetako lanpostu askoren inguruan, oso ikuspegi murrizta daukagu. Ez dakigu, zehazki, zer egiten duen matematikari batek edota informatikari batek. Beraz, lanbide horiek lehen eskutik ezagutarazi nahi ditugu hasteko. Izan dezatela ikasleek fisikaren,

ingeniaritzaren, arkitekturaren edota matematikaren gaineko informazioa. Gero, arlo horiek hautatu ahal izango dituzte, edo ez, baina ez diezaiotela, behintzat, zientziari eta teknologiarri aterik itxi, aurrez ezarrita dituzten estereotipo batzuen eraginez”. Zehazki, INSPIRA proiektuak, STEAM arloei buruzko informazioa emateaz gain, gogoeta eginarazi nahi die ikasleei zientziaren eta teknologiaren inguruan eraikitako estereotipoez, eta historian nahiz gaur egun ezkutuan eta isilpean geratu diren emakumezko zientzialariak ezagutarazi nahi dizkie.


Azken batean, sei gako nagusiren inguruan egituratu dute proiektua:

- Hurbileko emakume zientzialari eta teknologoaren erreferente berriak eskaintzea.
- Neska-mutilek STEAM lanbideak (zientzia, teknologia, ingeniari, arte eta matematikakoak) ezagutzeko.
- Herrialde baten garapenean gizonak eta emakumeak parte hartu beharrez jabetzea.
- Teknologiako unibertsitate-ikasketen inguruko sentsibilizazioa eta orientazioa eskaintzea.
- Emakume zientzialari eta teknologoak ezagutaraztea, eta haien garrantziaz jabetzea.
- Dauden estereotipoak ezagutaraztea, ikasketen aukeraketa baldintzatu ez dezaten.

Mentoringa ikasleengana gerturatzeko

Hezkuntzan, enpresan, ikerketan, kudeaketan... lanean diharduten zientzialariak eta teknologoak zuzenean elkartzen dira ikasle neskekin, euren jardunaren berri emateko, guztiak ere euren borondatez eta aholkulari gisa lan eginez. Aurreko ikasturtean jarri zen abian ekimena, proiektu pilotu gisa, eta, lehenengo edizio hartan, LHko 5. eta 6. mailako 200 neska baino gehiagoren mentore izan ziren 17 emakume, 11 ikastetxetan. Aurtengo ediziorako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 113 mentore, 43 ikastetxe eta 1.075 ikasle elkartu dira.

Mentoreak neskekin biltzen dira zuzenean ikasturte osoan sei orduz. Eskola-orduak erabiltzen dituzte horretarako. Iaz, eskolak berak erabakitzen zuen mutilekin zer egin, neskak gelatik irteten zirenean. Aurtengo ediziorako, berriz, mutilekin ere gai horixe bera lantzea erabaki dute: “Aurreko ikasturte amaierako balorazioan, ikusi genuen interesgarria izan zitekeela gizonetzkoekin ere gai bera lantzea. Baina, lanketa beste ikuspegi batetik egingo denez, emakumezkoek eta gizonetzkoek bereiz jardutea iruditu zaigu egokiena, gaia soilik neskekin landu beharra dagoela ikusi baitugu”.



INSPIRA proiektua

Zer da?

Ekimen bat da, nesken artean bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzeko.

Nori zuzentzen zaie?


Edozein ikastetxetako LHko 5. eta 6. mailako neskei.

Nola lan egiten da?

Mentoretzaren bidez: ikasleak zuzenean emakumezko zientzialari eta teknologoekin elkartzen dira, haien jardun profesionala ezagutzeko.

Nola eskura daiteke informazio gehiago?

www.inspirasteam.net webgunearen bidez.



ATZEKO ATETIK



‘THE FLOOR IS LAVA’

ITZIAR ALDUNTZIN KAZETARIA

Hik Hasi-tik deitu nindutenean beraienean “Atzeko Atetik” sartzeko, (zutabe honen izen iradokitzailea), lan zurrumbilo batean harrapatu ninduten eta beraien proposamenari “bai” azkar eta pentsatu gabeko batekin erantzun nion eta... lanean segitu nuen, zurrumbiloan gustura.

Egun hartatik esanen nuke bi hilabete edo pasa izan direla honez gero eta orain (bai, azkeneko momentuan, bezperan) bi egun daramatzat zutabe honetan zer konta nezakeen pentsatzen.

Hezkuntzaz aritzeko zutabe bat zela esan zidaten eta nire oroitzapenak konta nitzakeela.

Ez nuen nire bizipenen zutabe bat izatea nahi, ordea. Hori nori interesatzen ahal zaio? Baina zertaz aritu orduan? Hezkuntza-sistemaren azken 50 urteotako garapen edo garapen ezaz? Berezko hezkuntza sistema baten beharraz? Espainiar estatukoarenaren gabeziez edota urrutiko intxaurren edonoren inbidia omen den Finlandiakoaren bikaintasunaz? Golden 5az edo azken PISA-z igual! Oso gai interesgarriak denak baina batere inspiratzen ez nautenak zutabe bat idazteko. Zertaz idatzi orduan?

Bada horretan nenbilela, zer demonio konta nezakeen pentsatzen, ohartu naiz zutabe honetxek mugia-

razi dizkidala sekula santan joan ez diren oroitzapenak. Eta pentsatzen jarrita... ez dut ikasketen oroitzapenik! Jolasena bakarrik. Ez dakit ona edo txarra den hori baina halada. Memoria selektiboaren kontua izanen da, noski.

Beti jostetan, horrela gogoratzen ditut ikastolako urteak:

Txingoan, kaniketan, Barriletean, raketan, soka-saltoan, *A pillar* edo *Alturitas*-en, oraingo *The floor is Lava*-n. Horietxek ditut gogoan, kito. Besterik ez.

Gelan sagarra sokatik zintzilik jarri eta eskuak atzean genituela, hozka txiki bat nork osten zion ibiltzen ginen. Jolas horrekin, eta oraingo hezkuntzan erabili ohi diren kontzeptuak erabiltza, psikomotrizitatea, kolektiboa eta... pazientzia landuko genituen, ez baitut uste sagarrari azala ere altxatzera ailegatu nintzenik sekulan.

Bestela, ikastola ondoan zen *Iturri Zaharrea*-ra joaten ginen. Sekretuak konpartitzera, bizitzaz aritzera eta batez ere... zapoak akabatzen. Harrika gainera, biolentziaz. Hor biologia ikasiko genuen. Heriotza bera lantzeko modu bat ote zen? Edo... zergatik demonio hiltzen genituen zapo gaixoak!

Gainerakoan kanikak zeuden. Oh, kanikak! Oraindik ere bat eskuan

hartzeko aukera izan dudanean, liluratuta uzten nauten kristalezko harribitxiak. Kaniketan seguruenik ere beste zerbait ikasiko genuen. Zer ez galdetu, ez dakit eta! Hizkuntza gutxituak behar bada, Kaniken Hizkuntza Gutxitua: “Txiba-txibika, buenpie; tute-matute-retute buentrespies; Gua eta e-li-mi-nau”.

Joko horiek eta beste hamaika dira bada, ikastolako nire oroitzapenak. Leitzako Mikel Deuna ikastola desagertuan egindakoak, atarian bi palmondo handi zituen indiano etxe elegantean pasatakoak. Ikastolara beti marmitarekin joaten nintzeneko gogorapenak. Hutsik eraman eta etxera bueltakoan amonaren etxean gelditu eta marruka ari ziren ukui-luko behien esnez beteta bueltatzen nintzenekoak, pozik, jostetan nahikoa ibili eta gero.

Atzo gure mutikoaren ikastolako bilerara joan nintzen. Haur Hezkuntzan dabil eta, nire gozamenerako, andereñoek jolastuz erakusten dietela ohartu nintzen, fitxak alde batera utzita (bidenabarrean esan nahiko nuke, nire harridurarako orain dela mende Erdiko fitxa berberak direla, Urtxintxakoak). Hori poza 35 urte georago jostetan erakustez ari zirela aditzea! Zorionak Ibai Ikastola, horregatik eta aurtan 50 urte betetzen dituzulako. Jolas urte askoz!



HAUTATZEN DAKITENENTZAT

KRONIKAK, ANALISIAK, JOERAK, INFOGRAFIAK...

Eskura ezazu!

© 943 371 545 - www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

EGIN IAUZI ETA

CAF
ELHUYAR
SARIAK
2018

SORTU UHIN

HEDAKORRAK

INFORMAZIOA ETA OINARRIAK: cafelhuyarsariak.elhuyar.eus
LANAK AURKEZTEKO: cafelhuyarsariak@elhuyar.eus
LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA: 2018ko otsailaren 15a

AVIATION.COM

CAF elhuyar

AVIATION.COM

neiker

